



## AIXOTU

taldea sortu dute  
euskararen alde  
egin eta eragiteko

## UDAL AURREKONTUAK

22 milioi euroko aurrekontu  
proposamena aurkeztu  
du udal gobernu taldeak





Aixotu  
taldeko  
kideetako  
batzuk

# Aixotu

> Euskara bultzatu eta haren aldeko jarrera berpiztea xede duen taldea eratu da Oñatin

**H**erri euskalduna eta euskaltzalea da Oñati, bai, eta horregatik, hain justu, euskara jasaten ari den erasoei aurre egingo dien talde bat falta dela iritzita, **Aixotu** taldea sortu dute herriko hainbat gaztek, gure hizkuntza eta kulturaren aldeko interesa eta jarrera indartzeko asmoz. Herri mailan lan eta eragin asmo dute, baina maila nazionalean pentsatuz, beste elkarte batzuekin saretuta eta elkarlanean. Hizkuntza larrialdiaren aurrean herri euskaldun eta burujabea nahi eta behar dugula aldarrikatzen dute. Oñatiko euskaltzale oro animatu nahi dute **Aixotu** taldean batzera. "Herritar guztion ekarpenak eta elkarlana behar ditugu etorkizunean Oñati euskalduna nahi badugu".

► **Aizkora edo beste lanabesen bat zorroztea esan nahi du 'Aixotu'k oñatieraz**

**Zer dela eta erabaki duzue Aixotu taldea sortzea?**

Duela urtebete pasa hasi ginen elkartzen era informalean orain taldea osatzen dugunetako batzuk. Oñati herri euskalduna izanik, euskararen aurkako erasoei aurre egingo dien eta gure hizkuntzaren alde lana eta borroka egingo duen talde baten falta ikusten genuen. Eta sinetsita geunden herriak bazeukala horretarako ahalmena edo potentziala.

Gogoeta horietan murgilduta geundela, Euskal Herrian Euskaraz elkarreak (EHE) apirilean

**GARBIKETA  
ADMINISTRAZIOA  
ETA KONPONKETAK**

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarleen administrazioa
- Konponketa orokorrak



**653 70 45 47**  
Oñati

**EGUR-LAN**  
ARROZTEGIA  
LIMABAR S.A.L.

BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)  
TEL/ FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com  
www.egur-lan.es

antolatu zuen 'Harrotze Astea'n parte hartzeko hogeiko talde bat batu ginen, eta horri jarraipena ematea erabaki genuen.

### **Zer dela eta Aixotu izena?**

Oñatiko berba bat nahi genuen eta *Oñatiko Euskeria* liburuan aurkitu genuen. Burdingintzan erabiltzen den berba da, eta esan nahi du aizkora edo beste edozein lanabes zorroztea mailuz jota, tamaina bateraino gorritu ondoren. Fonetikoki polita iruditu zitzaigun eta, gainera, gure filosofia eta helburuekin bat dator, uste dugulako geuk ere zorrotzagoak izan behar dugula gure hizkuntzaren eskubideen defentsan.

### **Oñatin aurretik egon zen euskara taldeak (Laixan) laia zeukan ikur gisa. Zuek aizkora aukeratu duzue. Hori ere zer-baiten adierazgarri al da?**

Beste aukera batzuk ere izan genituen mahai gainean, baina aizkorarena hautatu genuen, estetikoki polita iruditu zitzaigulako eta, gainera, bat datorrelako taldearen izaera eta jardunarekin; azken finean talde hau ez da sortu euskara eta euskal kultura erromantizatzeke; gure jarduna gehiago izango da aldarrikatzailea eta, zentzu horretan, gehiago identifikatzen gara aizkora batekin.

### **Herri mailako taldea da Aixotu; Oñatira mugatuko al da zuen jardun eremua?**

Bai, baina kontuan izanik Oñatin egiten dugun lanak eragina izan dezakeela maila nazionalean. Illo horretan, Euskal Herriko beste euskara elkarte batzuekin saretu eta elkarlanean jarduteko asmoa dugu, batez ere EHErekin. Oñati mailan egingo dugu lan, baina beti maila nazionalean pentsatuz. Erriberatarren edo lapurtarren hizkuntz eskubideak geuk ere defendatu behar ditugula uste dugu.

### **Nola ikusten duzue euskararen egoera Oñatin. Zertan ikusten duzue eragin beharra,**

### **bereziki?**

Oñatiko egoera nahiko ona da. Azken kale-neurketaren arabera, %70etik gorakoa da erabilera gure kaleetan, baina ezin gara lokartu, euskarak mehatxu asko dituelako, bai kalean, bai sare sozialetan, komunikabideetan... Gaur egun dugun kontsumo eredu globalizatuarekin kanpoko eragina sekula baino handiagoa da, eta, jakina, euskararen erabilera beheraka doa.

Lan handia dugu egiteko, bai euskaraz dakitenek euskaraz egin dezaten, eta euskaraz ez dakienari samurtasunak ematen euskara ikasi eta erabili dezan. Ez dugu nahi, inola ere, ardura guztia euskara ez dakitenengan jarri nahi, baina arlo horretan lan handia egin dezakegu, denok,

**» Oñati herri euskalduna izanik, euskararen aurkako erasoei aurre egingo dien eta gure hizkuntzaren alde lana eta borroka egingo duen talde baten falta ikusten genuen.**

**» Oñati mailan egingo dugu lan, baina beti maila nazionalean pentsatuz. Erriberatarren edo lapurtarren hizkuntz eskubideak geuk ere defendatu behar ditugula uste dugu**

bai guk eta baita erakundeek ere, euskara ikasteko erraztasunak emanez, eta erabilera sustatzeko bidea eta aukerak eskainiz, *Berbalaguna* edo *Auzoko* bezalako ekimenen bidez, euskara erabilgarria dela erakutsiz.

### **Aixotu taldearen aurkezpen ekitaldian eztabaida edo debate polita sortu zen gaur egun eta, batez ere, gazteen artean erabiltzen den euskara mailaren inguruan. Kezkatzen al zaituzte gai horrek?**

Ez hainbeste. Egia da mundu globalizatu honetan ikaragarria dela kanpo-hizkuntzen eragina, eta horrek bere ondorioak dituela erabiltzen dugun hizkunt-

zan. Gaur egun askoz errazagoa da eralduntzea, euskalduntzea baino, gure eguneroko kultur kontsumoa gazteleeraz, frantsesez edo ingelesez delako, eta, beraz, euskaltzaleok ardura pittin bat izan behar dugu geure hizkuntza zaintzeko eta aberasteko. Beharbada, eskoletan ere beste modu batera irakatsi beharko litzateke. Arazoa hor dago, bai, baina ez da sartzen gure taldearen misio edo helburu nagusien artean.

### **Iraganean askotan entzun izan dugu euskara eta politika ez direla nahastu behar. Zuek, aldiz, argi eta garbi adierazi duzue euskara politizatu egin behar dela.**

Bai, guk garbi daukagu. Izan ere, euskarak egun bizi duen egoera erabaki politiko askoren ondorio da, eta euskara jasaten ari den eraso oldea ez da kasualitatea.

Baina horrek ez du esan nahi gu alderdi politiko jakin batekin lerratuta gaudenik. Gure lana izango da euskararen aurkako erabaki politikoak hartzen dituztenak seinalatzea, salatzea eta erantzukizunak eskatzea. Hortik aurrera, bakoitzak bere ideologia izango du, baina guk oso garbi daukagu independentzia dela euskararen eskubideak eta etorkizuna bermatzeko bide bakarra.

### **Nor animatzen duzue Aixotu taldera batzera?**

Herritar guztiak. Egia da, gazteak garela gehienok eta, agian, 50 urteko batentzat ez da oso erakargarria izango gure taldean sartzea, baina batenbatek interesa baldin badauka eta euskararen alde lan egiteko prest baldin badago, aurkituko dugu beste formularen bat elkarlanean aritzeko. *Aixotu* talde irekia da. Gaztetxean elkartzen gara bi astetik behin, eta Instagrameko *@aixotu\_* kontua ere ireki dugu gure jardunaren berri emateko.

### **Ezer gehitu nahi al duzue?**

Arazo handiei txikitik erantzun behar zaiela, eta antolatu egin behar garela, eta saretu. -

# Kiroldegiko bazkide txartela berritzeko unea iritsi da

> Abonuan aldaketak egiteko azken eguna urtarrilaren 15a da > Hobari eskaerak urtarrilaren 20a baino lehen egin behar dira > laz hobariaren bat jaso zutenek berriro egin behar dute eskaera, 2025ean ere jaso ahal izateko

Urte berriarekin batera, Zubikoa kiroldegiko BAZKIDE TXARTELA berritzeko unea iritsi da. Abonatu txartelean aldaketaren bat egin nahi izanez gero, hauek dira kontuan hartu beharreko epeak eta bestelako urraspideak:

## ABONUAN ALDAKETAK

• Abonuan aldaketarik egin ezean, automatikoki bazkidearen adin-tarteari dagokion prezioa kobratuko zaio. Abonuan aldaketaren bat egin nahi izanez gero, urtarrilaren 15a baino lehen egin behar da. Abonuen kobrantza urtarrilaren 20an egingo da.

## ESKUZ ORDAINTZEN DUTENAK

• Abonua eskuz kiroldegian ordaintzen dutenek urtarrilaren 2tik aurrera egin dezakete ordainketa. Data horretatik aurrera, eta abonua ordaindu arte, baja emango zaie.

## HOBARI ESKAERAK

• 2024an hobariaren bat jaso dutenek, eta 2025ean ere hobaria jaso nahi dutenek, eskaera egin beharko dute berriro udaleko HAZ (Herritarren Arreta Zerbitzua) bulegoan, edo telematikoki Udalaren web atarian ([www.oñati.eus](http://www.oñati.eus)). Errentaren eta bizikidetzaren unitateko kide kopuruaren arabera, %25 eta %95 arteko hobaria eskuratzeko aukera dago. (Ikusi [www.oñati.eus](http://www.oñati.eus) webgunean). Hobariak jasotzeko eskaerak urtarrilaren 2tik 20ra bitartean egin behar dira. Hobari eskaerarik egiten ez dutenei abonuen kuota osoa kobratuko zaie. Hobari eskaerak egiteko inprimakia kiroldegian edo udaleko HAZ zerbitzuan eskura daiteke.

URTEKO ABONUAK ABONOS ANUALES				
Norbanakoa/Individual				
Abonua Abono	Prezioa (urtea) Precio (año)			
0-2 urte / años	0€			
3-13 urte / años	99,80€			
14-22 urte / años	139,65€			
Nagusia (22 urtetik gorakoak) Adulto (mayor de 22 años)	199,60€			

Familiarra · Bizikidetzaren unitatea Familiar · Unidad convivencial				
Abonua Abono	Prezioa (urtea) Precio (año)	0-2 urte-años	3-13 urte-años	14-22 urte-años
Bikotea / Pareja	299,40€	- €	- €	- €
Bikotea seme-alabekin Pareja con hijos/as	299,40€	- €	49,85€	69,80€
Guraso bat gehi seme-alaba Un progenitor con hijos/as	199,60€	- €	49,85€	69,80€
Guraso bakarreko familia Familia monoparental	169,60€	- €	49,85€	69,80€

**CORTABARRIA**  
INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

**Etxe eta lokalen gestio orokorrak**

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: [inkorta@teletel.es](mailto:inkorta@teletel.es)

**smk**  
san miguel kooperatiba

943 781 217

kale barria 8 - 20560 oñati  
[www.sanmiguel.coop](http://www.sanmiguel.coop)



### ALDI BATERAKO ABONUAK ABONOS TEMPORALES

Urteko azken sei hileko abonua // Abono del último semestre del año

Data/ Fecha: uztailaren 1-etik aurrera / A partir del 1 de julio.

Prezioa / Precio: abonuaaren %60-a / 60% del abono

Urteko azken hiruhileko abonua // Abono del último trimestre del año

Data/ Fecha: urriaren 1-etik aurrera / A partir del 1 de octubre.

Prezioa / Precio: abonuaaren %35-a / 35% del abono.

### SARRERAK ETA BONUAK ENTRADAS Y BONOS

**GUNE LEHORRA / ZONA SECA**

	SARRERA	BONUA (10 SARRERA)
Gimnasio	- 22 urte / años 2,50€	- 22 urte / años 20,90€
Rokodromoa	+ 22 urte / años 4,95€	+ 22 urte / años 40,75€
Dutxa	2,35€	

\* Kiroldegirako sarrerak eta bonuek gimnasioa, aldagelak eta rokodromoa erabiltzeko balio dute.  
"La entrada y los bonos dan derecho al uso de los vestuarios, gimnasio y rocódromo"

**GUNE HEZEA / ZONA HÚMEDA**

Igerilekua	- 22 urte / años 3,60€	+ 22 urte / años 6,95€
Igerilekua	29,45€	58,85€
Sauna	4,55€	
Sauna	37,15€	
Sauna	69,30€	

Urteko bonua (abuztua izan ezik)  
Abono anual (excepto agosto)

## Pake Lekun hobekuntza lanak egingo ditu Udalak

Pake Lekuko eraikinari loturiko zenbait azterketa egin dira azken urtean, eta horietan proposaturiko hainbat esku-hartze egingo dira 2025ean.

Alde batetik, eraikinaren egoeraren Diagnostiko Txostena egin du Ainhoa Negeruela arkitektoak, eraikinaren gabeziak hobetzeko esku-hartze proposamenarekin.

Era berean, eraikinaren Jarduera proiektua landu du Javier Sinovas Arkitekto Teknikoak.

Horiek oinarri, Irigarritasun eta Suteen araudia betetzeko hainbat lan burutuko dira, baita teilatuko erreten eta balkoien konponketak ere, berokuntza instalazioaren hoditeria berriuko da, hezetasun arazoak konpondu eta beste hainbat lan egingo ditu Udalak 2025. urtearen hasieran.

## JABETZE ESKOLA 9 ikastaro negu-udaberriko eskaintzan

Udaleko Berdintasun sailak prest dauka Jabetze Eskolako negu-udaberriko eskaintza. Datozen egunetan banatuko da egitaraua etxe guztietara, eta bertan ikus daitekeenez, 9 ikastaro-tailer egiteko aukera egongo da urtarri eta maiatza artean.



- Gure bizi energia hobetzen: Chi Kung
- Amak tribuan: amatasuna eta feminismoari buruzko gogoeta taldea
- Barrez lehertzen. Umore tailerra ikuspegi feministatik
- Komunikazio asertiboa
- Autodefentsa feminista
- Jeloskortasuna bikote harremanetan
- Irakurketa feminista taldea. Pentsalari eta ekintzaile latinamerikarrak
- Feminismoa, ez-feministentzat
- Gizonak parekidetasunerantz. Gizonentzako foro irekia

# CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

**Etxe eta lokalen gestio orokorrak**

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teletel.es

Ramon Irizar kalea, 3  
Tel: 943 71 61 60

etxian@etxian.net  
www.etxian.net

# GURE ENERGIA KOMUNITATEA

## 'OÑATIKO ENERGIA KOMUNITATEA' SORTZEKO PROZESUA ABIAN DA



**E**nergia da gure bizitza modernoaren motorra, baina neurritz kanpoko kontsumoak eta berriztagarriak ez diren energia iturriek gure planeta kolokan jartzen dute. Zer egin? Gure herrian, Oñatin, Energia Komunitatea sortzeko prozesua abian da.

### Zer da Energia Komunitate bat?

Izaera juridikodun entitatea da. Ingurune hurbileko pertsona eta erakundeak —publikoak zein pribatuak— elkartuz, energia sektorearekin zerikusia duen jarduera batean lankidetzan aritzeko asmoz, bertako kideei edo tokiko komunitateari zerbitzuak edo bestelako onura sozioekonomiko eta ingurumenekoak emateko helburua duen elkarte.

Energia Komunitatearen forma juridikoa irabazi asmorik gabekoa behar duela izan azpimarratu behar da. Beste bi ezaugarri esanguratsu hauek ere badituzte: tokiko baliabideen aprobetxamendua bertako komunitatearen esku izatea eta gobernantzaren aldetik boterearen kudeaketa demokratikoa.

Europar Batasunak sustatuta, hainbat hiri eta herri dabilta dagoeneko antzerako proiektuak

▲  
Oñatiko Energia Komunitatea sortzen ari den sustatzaile taldearen bileretako bat

**Energiaren alorrek aldi berean interesatu eta kezkatu egiten gaitu**



martxan jartzen. Oñatin, Udalak emandako lehendabiziko bultzadaren ostean, orain herritar talde boluntario baten esku dago Energia Komunitatea kudeatzea (talde sustatzailea). Laster sortuko dugun entitate horrek abian jarriko diren proiektu eta egitasmoei marko legala eta formala ematen die. Forma juridiko ezberdinak aukeratu daitezke. Gure kasuan, kooperatiba bat sortzea erabaki dugu.

### Zergatik Energia Komunitate bat?

Energiaren alorrek aldi berean interesatu eta kezkatu egiten gaitu. Oreka jasangarri batetik urrun gaude, trantsizio energetiko baten beharra dago. Arazoaren dimentsioa eta larritasunez kontzientzia sortu eta zabaltea komeni da gure ustez. Gure bizimodua eta, orokorrean, ekonomia eredua jasangarria izan beharko lirateke. Bestalde, energiaren kontrola enpresa handi eta boteretsuen eskutan egoteak esan nahi du enpresa horien akziodunen onura dela lehentasuna, eta ez gizartearen onura. Beraz, jasangarritasuna, onura komunitarioa eta energia burujabetza ditugu helburu.

### Nolako proiektuak garatuko dira?

Abanikoa zabala da. Hemen adibide batzuk:  
– Eguzki panel komunitarioen

**ARANBURU  
ALTZARIAK**

Kale Zaharra, 21  
Kale Barria, 11  
Lizaur A., 7  
OÑATI  
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO  
GUZTIETAKO  
ALTZARIAK**

**LANPARAK,  
TAPIZAK,  
KORTINAK**



carpintería  
**GARIBAI**  
aroztegia

Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com  
[www.garibai-aroztegia.com](http://www.garibai-aroztegia.com)

**Jasangarritasuna, onura komunitarioa eta energia burujabetza ditugu helburu**

**Kooperatiba eratzen hasiko gara urtarrilean. Bitartean, lehendabiziko proiektua zein izango den erabakiko dugu**



bitartez energia sortu gure etxe eta negozioentzat.


- Energia kontsumoen azterketak egin, murrizketa alorrak identifikatu eta murrizketa planak garatu.
- Ingurumen hezkuntza.
- Mugikortasunaren inguruko jardunak.

**Nola egin nahi duzue hori?**

Ikuspegi kolektiboa eta ku-deaketa demokratikoa bermatuko ditugu. Denontzat izan behar da, eta denok parte hartu dezakegu. Eta zergatik ez, inguruko beste egitasmo batzuekin elkarlanean aritzeko beti egongo gara zabalik.

**Zer egin da orain arte?**

Oñatiko Udalak jarri ditu ekimenaren oinarriak. Irailetik hona zazpi saio egin ditugu. Aise Kooperatibak dinamizatu ditu saio horiek. Gainera, Goiener kooperatibako aholkulari bat eta Oñatiko Udalako teknikariak ere izan ditugu bidelagun. Egindako



Partehartzaileak antolatuta egiten dira. Eskaintza landu egiten dute. Ingurumenean, gizartean eta proiektu bakoitzean parte hartzen dutenen ekonomian eragina izatea da helburua. (Irudia: Goiener)

**Oñatiko Energia Komunitatean parte hartzeko: [info@onatiek.eus](mailto:info@onatiek.eus)**



Eguzki panel komunitarioen bidez gure etxe eta negozioetarako energia sortzea izango da proiektuetako bat

saioetan formakuntza jaso dugu: zer den energia komunitate bat, nola eratu daiteke, Oñatiko energia beharren inguruko informazioa, energia gaien inguruko informazioa, beste energia komunitate batzuk egiten ari diren proiektuak ezagutu...

Bestalde, hiru lantalde sortu ditugu (proiektuak, juridiko-administratiboa eta komunitatea-komunikazioa) eraginkorrak izateko. Dagoeneko gure erretaloa zehaztu dugu eta baita ere entitate eredu erabaki: irabazi asmorik gabeko kooperatiba mistoa eratuko dugu. Eta hasierako proiektuak zehazteko bidean ere bagaude. Azkenik, izena ere erabakita dago. Erreza eta zuzena:

**Proiektu mota ezberdinak garatuko ditugu: eguzki panelen bidez energia sortu; energia aholkularitza, kontsumoa optimizatu eta faktura murrizteko...**



**Oñatiko Energia Komunitatea (OEK).**

**Zein dira hurrengo urratsak?**

Kooperatiba eratzen hasiko gara urtarrilean. Bitartean, lehendabiziko proiektua zein izango den erabaki egingo da eta, ondoren, proiektuaren definizio eta garapen fasetan murgilduko gara. Proiektuaren atal garrantzitsu bat izango da herritarrek nola hartu dezaketene parte aztertu eta komunikatzea.

**Nola har daiteke parte Oñatiko Energia Komunitatean?**

Uneoro egn dezakezu bat gure ekimenarekin. Informazio gehiagorako: [info@onatiek.eus](mailto:info@onatiek.eus).

**Catalana Occidente**  
**Mikel Egaña Urrutia**  
Aseguruak

**Eskatu aurrekontua konpromezu gabe:**

- Heriotza
- Autoak
- Bizitza
- Istripuak
- Ontziak
- Osasuna
- Etebizitza
- Aurrezkitza
- Laborantza

Helbidea: Motxon 5, behea  
638 16 79 84  
[mikel.egana@ocartes.catalanaoccidente.com](mailto:mikel.egana@ocartes.catalanaoccidente.com)

**JUANJE MARGOAK**  
627 818 247



# Emakumion etxia eraikitzen

PARTE-HARTZE PROZESUA  
CONSTRUYENDO LA CASA DE LAS MUJERES  
PROCESO PARTICIPATIVO



## OÑATIKO EMAKUMION ETXIA

*Lan taldeak martxan dira jada*

Martxan ditugu Oñatiko emakumion etxeko lan taldeak: **Saltserak, Bisionariak, Gobernantak, Zubigileak** eta **Programatzaileak**. Hasi gara programazio irizpideak zirriborratzen, antolaketa ereduak fintzen, ideiak lotzen... eta herritarren iritziak jasotzen. Galdetegi bat jarri genuen martxan Zubigileen lan taldetik abendu hasieran, eta horren bidez, herritarren usteak eta kezak jaso nahi izan ditugu, datozen hilabeteetako lanerako, komunikaziorako eta proiektua aberasteko baliagarri izango delakoan. Eskerrik asko parte hartu duzuen guztioi.

### ASANBLADA OROKORRA

Urtarrilean, orain arte egindako lana bateratuko dugu **Asanblada orokorrean**. **Urtarrilaren 18an** izango da, 10:30etan Eltzian. (3. Solairuko gela balioanitzean, Musika Eltzia sarreratik) Eta gainera, hilabete amaieran, lehenengo formakuntza pilula izango dugu, Aise-ko Ana Perez eta Garoa Gartzandiaren eskutik, hau ere Eltzian.

*Formakuntza pilula*

**Talde-antolaketa horizontalerako gakoak, soziokrazia eta beste eredu batzuen eskutik**

**Formatzaileak:** Ana Perez eta Garoa Gartzandia (Aise)  
**Lekua:** Eltzia 3. solairuko gela balioanitzean (Musika Eltzia sarreratik)

-Urtarrilak 31, ostirala (18:00-20:00). Hurbilketa teorikoa (hitzaldia)

-Otsailak 1, larunbata (10:00-14:00). EMAKUMEEN ETXEAREN ERATZE PROZESUARi bide-laguntza (tailerra)



Saltserak



Bisionariak



Gobernantak



Zubigileak



Programatzaileak

**Zatoz!**

## LAN TALDEAK

Lan taldeetan izena eman nahian zabilta baina oraindik ez duzu pausua eman? ZATOZ, PROBATU, ETA EZ BAZAUDE EROSO, ALDATU!

[www.oñati.eus/eu/emakumion-etxia](http://www.oñati.eus/eu/emakumion-etxia)

Lan taldeetara oraingoz ez zara animatuko baina prozesuaren berri izan nahi duzu? Informatuta egon nahi duzu? Jarrai gaitzazu.

- Watsapp kanala: OÑATIKO EMAKUMION ETXIA
- Instagram: EMAKUMIONETXIA
- Web gunea: [www.oñati.eus/eu/emakumion-etxia](http://www.oñati.eus/eu/emakumion-etxia)



# “BEHAR DUZUN ZUNTZAK OPARIA DAKAR”

ZUNTZA 300 Mb  
+ MUGIKORRA 50 GB <sup>5G</sup>

**34,90 €**/HIL  
BEZa barne  
Linea-kuota  
barne

Eta dohainik eraman aire  
bidezko TRISTAR frijigailua  
edozein mugikor + zuntza tarifa  
kontratatzuz



PROMOZIO HONEK SOILIK HEMEN BALIO DU:

**LIZKER**  
INFORMATIKA

ATZEKO KALE 32 | OÑATI, GIPUZKOA  
TLF: 943 090 600



BEZa barne. Eskaintza baliozkoa izango da 2025eko urtarrilaren 1etik urtarrilaren 31ra arte kontratatzean: 300 Mb-eko zuntza + 50 GB-ko mugikor-linea (35 GB-ko tarifa + 15 GB-ko bonua) del mugagabeekin hilean 34,90 €-an. 229,90 €-ko deskontua instalazioan, 3 hilabeteko iraupen-konpromisoarekin. 5G abiadura, estaldurari eta 5G terminalari lotuta. Ikusi gainerako baldintzak hemen: [HYPERLINK "http://www.masmovil.es"](http://www.masmovil.es) www.masmovil.es

**MASMOVIL**  
AURREZTU, ETA KITO

# 2025erako aurrekontu eta egitasmoen proposamena aurkeztu du EH Bilduk

> 22 milioi inguruko aurrekontua aurkeztu du gobernu taldeak > Inbertsioetarako 2,5 milioi aurreikusten dira

Normalean, udalbatzak urte berrirako onartu dituen udal aurrekontuak izaten ditugu hizpide urtarrileko aldizkarian, abendu osoko bilkuran onartu ohi direlako hurrengo urterako aurrekontuak, baina, aurten, atzeratu egin da prozesua, alor politikoarekin zerikusirik ez duten arrazoiak tarteko.

Hala eta guztiz ere, gobernu taldeak hilabeteak daramatza 2025eko udal aurrekontuak lantzen eta, bertan aipatzen diren kopuruak behin betikoak ez badira ere, —kontu-hartzailetzaren berrespena falta delako—, hasi berri dugun urterako aurrekontu eta egitasmo nagusien proposamena aurkeztu du.

Datu orokorrekin erreparatu, 22 milioi ingurukoa izango da 2025eko udal aurrekontua, iazkoa baino %4,5 txikiagoa. Kontuan izan behar da, 2024an *Next Generation* laguntzei lotutako 2,16 milioi euroko partida berezia zegoe-lako; baina ezohiko baldintza hori kontuan hartu barik, %5 inguruko igoera izango dute aurtengo aurrekontuek, iazkoekin alderatuta.

Inbertsioetara 2,5 milioi euro bideratzea aurreikusten da, eta aipatzeko da, baita ere, ia 2 milioi euroko aurrezki arrunta izango lukeela aurrekontu proiektuak, "beste urte batez Udalaren egonkortasun ekonomikoa bermatzen delarik", esan du udal gobernuak.



Izaro Elorza, alkatea, eta Xabi Igartua, Ogasuna batzordeko burua

» **La 2 milioi euroko aurrezki arrunta izango luke aurrekontu proiektuak. Beraz, beste urte batez Udalaren egonkortasun ekonomikoa bermatzen da**

» **Orain arte bezala, inor bazterrean utziko ez duen proposamena landu dugu, merezi dugun herria egiten jarraitzea ahalbidetuko duena, bidezkoa, anitza, iraunkorra...**

"Oñatiren eta herritarren beharrei behar moduko erantzuna ematera bideratutako aurrekontua proposatzen dugu", adierazi du Izaro Elorza alkateak; "orain arte bezala, inor bazterrean utziko ez duen proposamena landu dugu, merezi dugun herria egiten jarraitzea ahalbidetuko duena, bidezkoa, berdinetik berdinerakoa, anitza, oina-

rrizko beharrak erdigunean dituen, iraunkorra...".

Irakurketa orokorra egin ostean, aurten gauzatu asmo dituen egitasmoetako batzuk azaldu ditu EH Bilduk, garbi utzita "guretzat proiektu denak, alor guztietakoak, direla garrantzitsuak.

## ZAINZA ARLOA

Zaintzaren arloan aurrera-

pausoak emateko borondate sendoa du gobernu taldeak, dagoeneko sortuta dauden zerbitzuak indartuz eta urrats berriak diseinatuz. Hala, adibidez, **Etxez-etxeko laguntza zerbitzuari** lotutako diru atalak %11ko igoera (1,3 milioi guztira) izango du. "Era berean, **Eguneko arreta zentroa** indartzen jarraituko dugu (35.000€) eta, gainera, **zaintza eredu berrien** inguruko lanketa egiten hasiko gara (20.000€)".

## BERDINTASUNA

2025eko aurrekontu proposamenak udal gobernu taldeak berdintasunaren arloarekin duen konpromisoa ere islatzen du, beste urte batez, EH Bilduk adierazi duenez. "Berdintasunerako gobernantza helburu, genero-ikuspuntua sail ezberdinetara eramateko urratsekin jarraitzen dugu; beraz, Berdintasun departamentuak ez ezik, besteek ere barnebiltzen dute **II. Berdintasun Planean** jasotako ekintzei loturiko partida". Berdintasun sailean, esaterako, 100.000 euro aurreikusitako dira, halako ekintzetarako, hala nola, **Jabetze Eskola, Hezikidetzeta** programa, **Aholkularitza juridikoa**...

Ildo berean, 15.000 euroko diru-atala jaso da **Emakumeen Etxea** antolatzeke parte hartze prozesuarekin jarraitzeko, eta **Berdintasun Kontseilua** babesten jarraituko dute Udalak (20.000€).

## ENERGIA PLANA

Energia berriztagarrietan eta energia eraginkortasunean sakontzen jarraitzeko asmoa du Udalak 50.000 euroko aurrekontuarekin. "Horiei gehitu behar zaizkie, besteak beste, **kale argiteria** berritzeko martxan ditugun 400.000 euroko lanak eta **kiroldegiko argiteria** berritzeko martxan direnak. Hauek biak 2024an hasitako proiektuak dira, energia jasangarritasunean



urrats berriak egitea helburu dutenak", azaldu du gobernu taldeak. "Kiroldedia aipatu dugunez, **gimnasioko makinak** berritzeko 20.000 euroko partida aurreikusitako dugula ere esan nahi genuke".

### IRISGARRITASUNA ETA LANDA GARAPENA

Aipatzekoen artean dago, bestalde, Oñatiko hamasei **landa auzoetako** diru laguntza eta inbertsioetarako aurreikusten den 300.000 euro pasako diru saila. Gainera, 50.000 euroko partida bat jaso da landa-lur izaerako partzelen **digitalizazio**arekin jarraitzeko. Bestetik, landa auzoen **irisgarritasunera** bideraturiko diru atal berezi bat ere jaso da (50.000€).

Herriguneko **irisgarritasunari** dagokionez, 400.000 euroko kontu saila aurreikusi da (2024an baino 100.000 gehiago) urrats berriak emateko, herritar guztientzako erosoia izango den herria eraikitzeko konpromisoan sakonduz. Gainera, 40.000 euroko partida bideratuko da **asfaltatze** lanetara.

### ELIKADURA JASANGARRIA

Tokiko elikadura jasangarria eta elikadura burujabetzaren aldeko urrats sendoak emateko konpromisoz hasi zuen agintaldia EH Bilduk, eta, ildo horretan, 25.000 euroko diru atala aurreikusi da **Elikadura Mahaia** sortu eta horri lotuta etor litezkeen beharrei erantzuteko. Ildo horretan, Deba-goiena mailako sor litezkeen elkarlaneko proiektuetan jarduteko asmoa berretsi du udal gobernuak.

### KULTURA ETA EUSKARA

Euskarari dagokionez, ohiko partidez gain (Euskaltegiko bekak, gazteen artean euskara sustatzeko ekimenak, *Euskaraldia...* ) inbertsio garrantzitsu bat (400.000€) egingo da **Euskaltegiak** eta **Txipistin-ek** (jatorri anitzeko

## EGITASMO NAGUSIETAKO BATZUK

### ZAINTZA

Zaintzaren alorrean %11ko igoera izango du Etxez-etxeko laguntza zerbitzuak (1,3 milioi)

### EUSKALTEGIA

Euskaltegia eta Txipistin programaren egoitza berrituko da (400m€)

### PLAZA INGURUAK

Herriko plaza inguruko espazioan esku-hartze integrala egingo da (420m€)

### ETXALUZETAKO PARKEA

8-14 urteko gazteentzako jolas gunea egokituko da Etxaluzeko parkean (200m€)

### IRISGARRITASUNA

Herriko irisgarritasuna hobetzeko lanak (400m€)

### OLAKUAKO URMAELA

Olakuako ur putzua birgaituko da (75m€)

### KIROLDEGIA

Gimnasioko makinak berrituko dira (20m€)

### UNIBERTSITATEA

Unibertsitate zaharrean ikasketa-gelak egokituko dira, eta bertara lekualdatuko da turismo bulegoa

### ELIKADURA MAHAIA

Elikadura Mahaia sortuko da (25m€) tokiko elikadura jasangarriaren bidean sakonduz

### ERRONKAK

Harrera Plana landuko da eta hasiera emango zaio Etxebizitza Planari

6-16 urte arteko gazteei zuzendutako programa) dabilten egoitza berritzeko.

Kultura arloan, bestalde, 100.000 euroko partida dago aurreikusita **jai batzordeen** laguntzetarako. Gainera, Kultura eta Haur eta Gazteria departamentuen artean 110.000 euroko kontu saila izango dute herriko **kultur eragile** eta **sortzaileen** proiektuak sustatzeko.

### HEZKUNTZA

Hezkuntza mailan, Oñati **Herri Hezitzaile** bezala indartzeko lanean jarraitzeko asmoa du gobernu taldeak. Azken urteetako ildoari jarraituz, ikastetxe eta hezkuntza komunitateko eragileen arteko elkarlanerako proiektuak lantzen jarraitzeko diru partida handitzea aurreikusten da (55.000 euro pasa). Eta **hezkuntza eraikinetan** ohiko mantenu, funtzionamendu eta garbiketa gastuez gain, ia beste 200.000 euro

bideratuko dira ezohiko inbertsioetara.

### SOZIOEKONOMIA

30.000 euroko diru laguntza jasota dago **tokiko merkataritza** sustatzen jarraitzeko, eta, ohi bezala, ekintzaile eta herriko enpresak babesten jarraitzeko konpromisoa du Udalak.

### BASOGINTZA

Herri onurako lurren kudeaketa iraunkorrean sakontzeko asmoa du gobernu taldeak eta, ildo horretan, 40.000 euroko partida mantentzen da **lur patrimonialen** erosketarako.

Bestalde, ingurumen alorreko beste ekimen bat ere azpimarratu nahi izan du gobernu taldeak: "**Natur Eskola** indartu nahi dugu, zerbitzu hau herriratzeko ahalegin berezia eginez, hari loturiko diru partida 123.000 eurotik 170.000 eurora igota".

### BESTELAKO PROIEKTUAK

Bestelako esku-hartze garrantzitsu batzuk ere egingo dira 2025ean. Hala, adibidez, **Olakuako** putzua birgaitzeko 75.000 euroko diru partida jaso da. Bestalde, **herriko plaza** inguruko espazioak birgaitzeko esku-hartze integrala egingo da (420.000€).

Azpimarratzekoa da, baita ere, **Etxaluzeko parkea** ere berritu egingo dela (200.000€); bertan 8-14 urte arteko gazteentzako jolas gunea egokitzeko asmoa du gobernu taldeak.

**Sancti Spiritus** unibertsitatearekin loturiko egitasmoak ere azpimarratu nahi izan ditu gobernu taldeak. "Azken urteetan gogoz landu dugun proiektu bat da: unibertsitate zaharra herriratzeko asmoz, bertara lekualdatuko genuke Turismo Bulegoa; gainera, ikasketa gelak egokituko ditugu herritarrek erabiltzeko. Kasu honetan, aurrekontuak ez du partida zehatzik jasotzen, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera dirulaguntza garrantzitsua jasoko baitugu Europako *Next Generation* Funtsetik. Esan daiteke dirulaguntza hori aurrez eginiko lan mardularen emaitza dela".

### ERRONKA KONPLEXUAK

Zenbait erronka konplexuri loturiko azterlanak egitea ere aurreikusita du gobernu taldeak. "Hainbaten artean, **Harrera Plan** integrala landuko dugu (15.000€), eta hasiera emango diogu **Etxebizitza Planari**. Kasu honetan, behinik behin, udaleko baliabideak erabiliko genituzke", azaldu dute.

Aurrekontu eta egitasmoen proposamena **Herri Programari** eta haren bidez hartuak ditugun konpromisoei zuzenki lotuta dagoela, adierazi du EH Bilduk. Arduraz landuriko proposamena da, alor guztiguztiak erdigunean izanda, bakoitzaren beharrak identifikatu eta ondo aztertu dituenak.

# Herriko plaza inguruak birgaitzeko proiektua esku artean du Udalak



Plazako kioskoa eta pilotalekuaren artean egingo diren esku-hartze nagusien aurrerakina

- > **Kiosko inguruko zorua berritu eta berdeguneak moldatu egingo dira, Gernikako arbola eta iturriaren presentzia indartuz**

---

- > **Kioskoaren atzealdeko hesia zabaldu eta bertan harmaila batzuk jartzea proposatzen da**

---

- > **Gazteleku aurreko zorua guztiz eraberrituko da. Zoru laua eta ez irristakorra ipiniko da**

---

- > **Azoka gunean behin betiko arrapala eraikiko da irisgarritasuna bermatzeko**

Hirigintza arloari dagokionez, Udalak aurtun gauzatu asmo duen proiektu nagusietako bat da: Foruen plaza inguruko espazioak birgaitzea. Eta, dagoeneko, esku artean du *Juntura* arkitekto taldeak landu duen proiektuaren aurrerakina.

Azken Partaidetzazko aurrekontu prozesuan herritarren boto gehien jaso zuen proposamena izan zen, eta ertz asko dituen proiektua izanik, Udalak lanketa berezia egin nahi izan du udaleko sail ezberdinak (Haur eta Gazteria, Berdintasuna, Hezkuntza, Partaidetza...) elkarlanean jarriz arkitekto taldearekin, erantzun bateratua eman ahal izateko.

Ildo horretan, plaza eta inguruak erabiltzen dituzten gizarte taldeak identifikatu eta beraien beharretara egokitzen saiatzea izan da erronka nagusia: haur eta gazteak, helduak, zaintzaileak...

Eremu honek urtean zehar dituen erabilera ezberdinetan (egoteko tokiak, aisialdirako gunea, zaintzarako espazioa, ikastolako atsedendia, barrakak, azoka...) jarri da fokua, irisgarritasuna, berdintasuna eta inklusioa aintzat hartuz, noski.


## ESKU-HARTZE NAGUSIAK

Udala esku artean du, dagoeneko, proiektuaren aurrerakina, Foru Aldundiko ondare sailaren oniritzia duena, eta hauek dira gauzatu asmo diren esku-hartze nagusietako batzuk:

- Kiosko inguruko zorua berritu eta berdeguneak moldatuko dira, guztiontzako erabilgarriak izan daitezen, eta Gernikako arbola eta iturriaren presentzia indartuko dira.
- Kioskoari erabilera anitzagoa eman asmoz, iturri aldeko hesia zabaldu eta harmailak jartzea proposatzen da.
- Gazteleku aurrealdeko zorua guztiz berrituko da. Laua eta ez-irristakorra izango da.
- Azoka guneari dagokionez, behin betiko arrapala egokituko da, eta berdindu egingo dira azoka barneko eta kanpoko kotak, espazio jarraia bermatzeko. -



## Estalpe arina egokituko da kiroldegi aurreko jolaslekuan



Parkinerako sarrera-eraikinari atxikita egokituko da estalpea

Azken Partaidetzazko Aurrekontuak prozesuan herritarrek aukeratutako proposamenetako bat izan zen kiroldegiaren aurrealdeko jolas parkean aterpea eta iturria jartzea. Eta aukera ezberdinak aztertu ostean, ondoko irudiak erakusten duen irtenbidea lehenetsi du Udalak. Proiektu honen arabera, jarlekua egokituko da lurpeko parkineko sarreraren kontra, eta estalki bat txertatuko zaio sarrerako eraikinari. Egitura zurruna izango duen arren, estalkiak argia pasatzen utziko du. Esku-hartze honi esker, egoteko leku atsegin eta eroso egokitu nahi da, eguzki eta euritik babestu ahal izateko. Esku-hartze xumea izan arren, espazioari goxotasuna emango dio estalkiak. Parkea haurrek erabiliko duten arren, zaintzailengan ere arreta jartzea ezinbestekoa dela uste du Udalak, eremu inklusiboak sustatuz.

## 8-14 urte arteko gazteentzako aisialdi eremua egokituko da Etxaluzeko parkean

> Gazteentzako jolasguneaz gain, helduentzako egonleku eta paseatzeko leku atsegin eta irisgarriak ere egokituko dira

Udalak 8 eta 14 urte arteko haur eta nerabeei zuzenduriko aisialdi gunea egokituko du Etxaluzeko parkean. Modu horretan azken Partaidetzazko Aurrekontuak prozesuan herritarrek aukeratutako bederatzi proiektuetako bati —jolas parkeetan 8-14 urteko haur eta gazteentzat elementuak jartzea— erantzun nahi dio.

Horretarako, Etxaluze parkea eraberritzeko 2016an idatzi zuten 'Parke Gorrixa' izeneko proiektua —lanak kontratatzerakoan izandako arazoengatik egin gabe geratu zena— berridaztea eskatu die Udalak Negeruela-Otaegi arkitektoei, behar berrietara egokituta.

Arkitektoek udaleko sail ezberdinetako (Haur eta Gazteria, Hezkuntza, Berdintasuna, Partaidetza...) teknikariekin batera jardun dute proiektua lantzen, birmoldatze proiektua ahalik eta integralena izan dadin. Izan ere, parkea gazteengan pentsatuta birmoldatuko bada ere, beste herritar askorentzako ere espazio atsegina, irisgarria eta inklusiboa izatea nahi baita.

Horregatik, lanketa prozesuan hainbat faktore hartu dira kontuan, hala nola: erabilzaila motak, hauen ibilbide eta fluxuak, okupazio edo erabilera mota ezberdinak ordutegiaren arabera, itzal guneak, eserlekuen ergonomia, zoru bigun eta gogorren arteko proportzioa...

Udalak proiektuaren aurrerakina jaso du, jada, eta hauek dira bertan egin asmo diren esku-hartze nagusiak.



### PROIEKTUAREN ARDATZ NAGUSIAK

- Espazio berdeak malgutu eta berdeguneen presentzia handituko da. Horri esker itzal eremu gehiago lortzeaz gain, zenbait berdegune jolaserako erabilgarriak izatea nahi da.
- Jolas mota anitzak proposatu ahal izateko oholtza bat egokituko da, erabilera multifuntzionala izango duena. Erabilera librea izango du eta espazio zein jolas eredu inklusibo eta ez inbaditzaileak bermatzea izango du xede nagusizat.
- Era berean, adin tarteari erantzun nahian, egoteko banku eta mahai inguruak diseinatu dira. Sozializatzeko espazioak izango dira, elkarren artean konektatzeko gune intimo baina seguruak izatea bermatuz.
- Helduentzako egonleku eta paseatzeko leku atsegin eta irisgarriak ere egokituko dira. Denon arteko elkarbizitza bermatuko du diseinatutako espazioak.



# EAJk 6 proposamen aurkeztu ditu udal aurrekontuen proiekturako

2025eko aurrekontuak "aberastea" da jeltzaleen xedea



"Oñati hobea, inklusiboagoa eta konektatuagoa eraikitzeko xedez egindako proposamenak dira", adierazi dute

EAJ-PNVren udal taldeak 6 proposamen aurkeztu dizkio udal gobernuari 2025eko aurrekontu proiektua aberasteko helburuarekin. "Azpiegitura garrantzitsuekin eta iraunkortasuna, komunikazioa eta zerbitzuekin lotutako proposamenak dira, eta alderdi jeltzaleak Oñatiko herritarren bizi-kalitatea eta ongizatea bermatzeko duen konpromisoa islatzen dute", adierazi dute jeltzaleek.

Amaia Erostarbe bozera-maleak urteroko ariketa honen garrantzia azpimarratu zuen, aukera ematen baitu herritarrei entzun eta haien eskaerak erakunde mailara eramateko. "Helburu argia dugu: Oñati hobea eraikitzea,

inklusiboagoa eta konektatuagoa. Proposamen hauek lan etengabe baten eta gure herritaren benetako beharrezanekin hurbileko elkarriketa baten emaitza dira".

**ELKARLANERAKO PREST**  
Aurkeztutako proposamenak aurrekontuetan jasotzea nahi du EAJK, eta berretsi egin du Oñati irisgarriago eta iraunkorrago baten aldeko konpromisoa, udal gobernuarekin eta herritarrekin elkarlanean. "Lana eta entzute aktiboa izango dira aurrera egiteko gure bide nagusiak. Proposamenek ez diete erantzuten soilik egungo beharrei; etorkizunari ausardiaz eta arduraz ere begira daude. Udal gobernuari benetako elkarlana eta eraginkorra eskaintzen diogu. Badakigu EH Bilduk gehiengo osoa duela herrian, baina, elkarrekin, Oñati hobea eraiki dezakegu".

EAJren udal taldeko kideetako batzuk

## EAJ-PNVren udal taldeak aurkeztutako proposamenak

- Herribusaren hirugarren linea.** Oñati eta San Prudentzio artean ibilbide berri bat ezartzea konektibitatea hobetzeko. Aukera hori, gutxienez, aldi baterako planteatzen da, Foru Aldundiak eskualdeko lineatan egingo duen berrantolaketak behar hori bete arte. Herritar askoren eskaria da, eta erantzun bat eman beharrea daudela uste dute jeltzaleek.
- Pantailak herriko puntu garrantzitsuetan.** Herriko plazan, Eltzian edo san Martin bezalako gunetan pantaila digitalak instalatzea, herritarrekiko komunikazioa hobetzeko. Udalaren eta herriko eragileek antolatutako ekitaldien berri emateko modu zuzena, azkarra eta garbia da, EAJren ustez.
- Musika eskola berriaren kokapenaren azterketa.** Kokapenaren inguruko aukera ezberdinak aztertzea, erabaki informatuak hartzeko. Azterlan bat egin dago, eta hiru urte daramatzagu diru partida batekin aurrekontuetan, baina ezer egin gabe. Jeltzaleen ustez lehentasunezkoa da zerbitzuaren kokapenari buruzko azterlanari heltzea, Oñatik lehenbailehen eduki dezan behar moduko musika eskola.
- Eltzia eraikinean gimnasio osagarri bat sortzea.** Helburua da Oñatiko kirol eskaintza hobetzea, kiroldegiko erabilera arinduz. Pandemia garaian funtzionatu zuen, eta, modu horretan, erdigunera kotxe gutxiago joatea ere lortuko litzateke.
- Eltzia parean barandilla bat jartzea errepidearen eta jolaslekuaren artean.** Segurtasuna bermatzeko eta istripuak saihesteko neurri bat da.
- Kontzejupetik udal aldizkarian gaztelaniazko bertsio digitala.** Udal aldizkaria gaztelaniaz ere irakurtzeko aukera, on line, QR kode baten bidez. Herritarrengandik jasotako eskaera bat dela adierazi dute jeltzaleek.



San Martin egoitzan **Boluntariotza taldea** eratzeko bilera irekia deitu du Oñatiko Nagusien Mahaia

**URTARRILAREN 20an, SAN MARTIN EGOITZAN, 18:00etan**

San Martin egoitzako egoiliarrei lagundu, harreman sareak sortu eta haien bizi-kalitatea hobetzeko asmoz, Boluntariotza talde bat sortzeko bilera irekia deitu du Oñatiko Pertsona Nagusien Mahaia.

Baluntarioen eginkizuna izango da, besteak beste, egoiliar jakin batzuei laguntza eskaintzea, batez ere aire libreko paseoetan. Boluntario berak edo talde txiki batek egoiliar berarekin harreman jarraitua izatea bilatzen da, konfiantza eta lotura emozional sendoak sortzeko.

Bestetik, egoitzak antolatzen dituen ekitaldietan, hala nola jarduera kulturalan, laguntza logistikoa ematea izango litzateke boluntarioen egitekoa. Ekintza hauen helburua egoiliarren komunitate-bizitza aberastea da.

#### DEIALDI IREKIA

Horregatik, konpromisoa hartzeko prest dauden herritarren parte-hartzea ezinbestekoa da. Bileran azalduko dira parte hartzeko aukerak. Herritarren elkarlanari esker egoiliarrek herriaren parte izaten jarraitu ahal izango dute.

## Oñatiko ondare toponimikoa jaso eta eguneratzen egindako lanaren emaitza aurkeztuko dute

173 leku-izen berri jaso dira, auzoz-auzo egindako lanari esker  
**URTARRILAREN 15ean EGINGO DA AURKEZPENA, ZINE ARETOAN (18:30)**

Lehenago ere egin izan dira herriko ondare toponimikoa jasotzeko lanak udal mailan. Hala, 2005ean Oñatiko 850 bat leku-izen biltzen zituen Mapa Toponimikoa argitaratu zuen Udalak, eta handik lau urtera, 2009an, osatu eta berrargitaratu egin zuen mapa, 1.000tik gora leku, erreka eta baserri izenekin, besteak beste.

Udaleko Euskara eta Hirigintza sailtako teknikariek jardun zuten lan mardul hura egiten, Luis M<sup>a</sup> Mujika hizkuntzalariaren 'Euskal Toponimiazko Materialeak' bilduma, Kandido Izagirreren hiztegia, Amaia Erostarbek urte batzuk lehenago auzoz-auzo egindako jasoketa lana, eta beste herritar batzuek auzo ezberdinetan egindako lanak oinarri hartuta, besteak beste.

Baina, oraindik, bada jaso gabe dagoen ondarerik leku-izen edo toponimoei dagokienez, eta horien inguruko lehen eskuko informazioa eman dezakeen belaunaldia joan aurretik jasotzea komeni da.

Horregatik, Udalak EMUN enpresari enkargatu zion ondare hori jaso eta eguneratzeko lana iazko uztailean, eta, orain, egindako lanaren



[https://herrigis.gis-cdn.net/topo\\_oinati/indexT.html](https://herrigis.gis-cdn.net/topo_oinati/indexT.html)  
helbidean kontsulta daiteke Oñatiko mapa toponimikoa

emaitza aurkezteko unea iritsi da. Hilabete hauetan zehar, Emun-ekoek hainbat bilera egin dituzte herriko auzorik gehienetan toponimo berriak bildu eta lehendik jasotakoak erreparatzeko.

Horrez gain, lanagatik edo zaletasunagatik, herriko toponimia batzen lan handia egin duten herritarrekin ere (Joxe Angel Idigoras, Bixente Unzurrunzaga, Jabi Azkoaga...) hainbat kontraste bilera egin dituzte, eta toponimoen idazkerari buruzko irizpideak ere zehaztu dituzte.

Orain, esan bezala, lan

guzti horren emaitza erakusteko unea iritsi da eta, horretarako, aurkezpen ekitaldia egingo da **urtarrilaren 15ean**, kultur etxeko zine aretoan (18:30). Herritar guztiak daude gonbidatuta. Orain arte egindako lana ez ezik, aurrera begirako eta ondare horren zabalkundea egiteko dauden asmoen berri emango da bertan.

Gure arbasoek utzi diguten altxorra dira toponimo edo leku-izenak, euskarak izan zuen bizia eta indarraren isla, euskararen aberastasunaren erakusleak.



# 136.500 euro, garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzarako

Aurrekontuaren %0,7 inguru bideratzen du Udalak hegoaldeko herrialde pobretuen aldeko lankidetzarako proiektuak, ekintza humanitarioak eta eraldaketa sozialeko sentsibilizazio jarduerak sustatzera

Joan berri den urtean 136.500€ bideratu ditu Udalak —udal aurrekontuaren %0,7 gutxi gorabehera— garapenaren aldeko lankidetzarako proiektuetara, lau atal edo lerrotan banatuta:

-**'A'**: Hegoaldeko herrialde pobretuetan lankidetzarako estrategikoak garatzeko laguntzak (85.135€).

-**'B'**: Hegoaldeko herrialde pobretuetan lankidetzarako ekintza edo ekimen puntualetarako laguntzak (30.000€).

-**'C'**: Oñatin bertan eraldaketa sozialerako heziketa eta sentsibilizazio jarduerak (9.500€).

-**'D'**: Larrialdietarako laguntzak eta ekintza humanitarioko proiektuak (18.000€).

'A' eta 'B' lerroetako laguntzak eskatzeko martxoaren 6a arteko epea finkatu zen. 'A' atalean 14 eskaera jaso ziren eta baldintzak betetzen zituzten 12 proiektuei onartu zaie laguntza (ikus ondoko orrian). 'B' lerroan 7 eskaera jaso ziren udaletxean eta horietatik 6k jaso dute laguntza, udaleko Partaidetza eta Garapen Komunitarioko batzordeak zehaztutako puntuazio-irizpideen arabera, beti ere.

'C' atalean abuztuaren 31ra arteko epea zegoen eskaerak aurkezteko. Aurten bi eskaera jaso ditu Udalak eta biek ala biek jaso dute dirulaguntza. Azkenik, 'D' lerroan azaroaren 1era arteko epea zegoen eskaerak aurkezteko, eta horiek jaso ahala egiten du ebazpena Udalak, kreditua agortu arte. Aurten hiru proiektutarako laguntza-eskea jaso da, eta hirurek jaso dute



dirulaguntza, ondoko orrian ikus daitekeen moduan.

## ORDAINKETAK

'A' lerroko onuradunek dirulaguntzaren %75a jasotzen dute onarpenarekin batera, eta gainerako %25a kopuru konputagarriaren zuriak egin ostean.

Beste hiru atalean, %100a ordaintzen da onarpenarekin batera. Gero, urtea amaitu baino lehen dirulaguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete direla eta diruz lagundutako ekintzak burutu direla egiaztatu behar dute, kontu zurigarria aurkeztuz.

▲  
Goian, Oñatiko **Misio Taldeak** Dhaguel-en (Ginea Konakry) aurrera daraman elkartasun proiektuaren baitan eraiki eta martxan jarri duen emakumeentzako ikastetxea. Ezkerrean, **Arantzazuko Adiskideen Elkarte** Belengo *Hogar Niño Dios* zentroan haurren bizi-baldintzak hobetzeko burutzen ari den elkartasun proiektuko irudiak. Haur onuradunetako batzuk, eta bertan instalatu dituzten eguzki plakak eta lisatzeko ekipamendua



## 'A' lerroa: Lankidetza proiektu estrategikoak hegoaldeko herrialde pobretuetan

### • **Bubulum elkarte** / 4.500€

Jinotekako (Nikaragua) landa eremuan urritasuna duten ume eta gazteei arreta eskaintzen duten hezitzaileentzako soldata.

### • **Mundu Solidarioa Helburu elkarte** / 10.350€

'Nosotros/as también podemos' ekintzailatza proiektu inklusiboa Nikaraguan.

### • **Mundu Solidarioa Helburu elkarte** / 3.450€

Garapenerako sustatzaileen formazioa. Ekintzailatza sozial eta jasangarrirako hurbilketa Nikaraguan.

### • **Arantzazuko Adiskideak elkarte** / 8.585€

Belengo *Hogar Niño Dios* zentroko haurren bizi baldintzak hobetzeko energia proiektu jasagarria.

### • **Elkartasuna Txiapasekin** / 8.550€

Komunitate indigenen formazioa eta antolaketa beraien lurraldearen defentsarako, derrigortutako desplazamenduen aurrean, eta ama luraren zaintzarako, Mexikon.

### • **Hermansoloña elkarte** / 7.200€

Argentinako Jose C. Paz hiriko *Predio Nazareth* zentroa hobetu eta ekipamenduak berritzeko.

### • **Hermansoloña elkarte** / 9.000€

Tinduf-eko (Argelia) *Mahbes* dairako bizilagunei laguntzeko proiektu integrala.

### • **Hotz-Oñati elkarte** / 10.350€

Yemengo familiei janari- eta osasun produktu-sortak bidaltzeko.

### • **Zazpi Udaberri elkarte** / 9.000€

Emakumeen heziketa eta ahalduzko programa komunitarioak indartzeko, Guatemalan.

### • **Lumaltik elkarte** / 9.141€

Zapatisten komunikazio eta garapen proiektuetan sakontzeko, genero eta ingurumen ikuspegietan sakonduz.

### • **Nomada elkarte** / 3.825€

Seduwa-ko (Nepal) gizarte-zentroa osotasunean hobetzeko proiektua.

### • **Nomada elkarte** / 6.000€

Kalika (Nepal) herriko hezkuntza proiektua indartzeko.

## 'C' lerroa: Oñatin bertan egiten diren eraldaketa sozialerako heziketa eta sentsibilizazio jarduerak

### • **Erei elkarte** / 4.000€

'Kulturarteko bizikidetzarako urratsak ematen ahots migratuen bidez' proiekturako.

### • **Mundu Solidarioa Helburu** / 500€

'Nuestra identidad. Dos miradas, un mismo fin' egitasmorako.



## 'D' lerroa: Larrialditarako laguntzak eta ekintza humanitarioko proiektuak

### • **Hotz-Oñati** / 4.000€

Migratzaile eta errefuxiatuek ihes egiten duten itsas bideetan laguntza humanitarioa eskaini eta itsas-salbamendu lanetarako.

### • **Hotz-Oñati** / 4.000€

Atenaseko eta Hegoaldeko Mugako errefuxiatuentzako arreta.

### • **Hotz-Oñati** / 4.000€

Hezteko eta babesteko gosariak Yemenen.

## 'B' lerroa: Lankidetza ekintza edo ekimen puntualak hegoaldeko herrialde pobretuetan

### • **Hermansoloña elkarte** / 4.600€

Jose C. Paz hiriko (Argentina) 'CONTYGO' elkarteko zentroetako dinamizatzaileentzako laguntza.

### • **Hermansoloña elkarte** / 5.500€

Jose C. Paz hiriko (Argentina) *Toki Eder* Euskal Etxeko joskintza tailerrak burutzen duen ekintza soziala bultzatzeko.

### • **Hermansoloña elkarte** / 2.000€

Jose C. Paz hiriko (Argentina) *Belén* haurtzaindegiko serigrafia tailerra ekipatzeko.

### • **Hermansoloña elkarte** / 1.092€

Argentinako *Aprodi* babestutako tailerrean atea eta burdin-sarea egokitze.

### • **San Migel parrokia** / 3.500€

Dominikar Errepublikako mugako landa gunetako haur eta nerabeentzako kalitatezko heziketa eta elikadura bermatzeko.

### • **San Migel parrokia** / 7.125€

Santo Domingoko (Dominikar Errepublika) *La Esperilla* sorospen zentroa eta *P. Billini* ospitaleko fundazioarentzako laguntza.

# Avanza enpresari Debagoieneko autobus zerbitzuaren kontratua ez luzatzea eskatu dute eskualdeko alkateek

**Garraio publikoa hobetzeko lehenbailehen egin beharreko hiru esku-hartze proposatu dizkiote Aldundiari**



Gipuzkoako Batzar Nagusietan abenduaren 11n egin zen bilkura jarraitzen egon zen Debagoieneko alkateen ordezkari bat, eskualdeko mugikortasun arazoak bideratzeko berehalako neurriak eskatzen.

Debagoieneko zortzi alkateek agerraldia egin zuten abenduaren 9an, Aldundiak Avanza enpresarekin duen kontratua ez luzatzeko eskatuz. 2025eko martxoan beteko da indarrean den 10 urteko emakida eta, berau luzatu gabe, zerbitzuan hobekuntzak jasoko dituen kontratu berri bat egitea eskatu dute.

Debagoienean gora egin du autobus publikoaren erabilerak azken urteetan, baina zerbitzuaren kalitateak nabarmen egin du behera, eskualdeko alkateen esanetan. Kalitate galera horren adierazle dira, besteak beste, autobusen matxurak, puntualitate eza, jendez lepo doan autobusa hartu ezinik geratzea edo zutik kilometrotan bidaiatu behar izatea, aurrez txartela Internet bidez erosita izan arren.

Alkateek gogoratu zuten Debagoiena dela tren bidezko zerbitzurik ez duen eskualde bakarra Gipuzkoan, eta autobusa dela garraio bide publiko bakarra. Horregatik, "kalitatezko garraio publikoa ezartzeko aukera aprobeztatzeko" eskatu diote Foru Aldundiari.

Era berean, zerbitzuak behar dituen aldaketak egiten hasteko hainbat proposamen helarazi dizkiote Aldundiko Mugikortasun departamenduari, lehenbailehen egin beharreko hiru esku-hartze zehatzuz:

- Herrien arteko loturaren maiztasuna 15 minutukoa dela bermatzea, herrien arteko linea azkarrak jarrita eta linea batzuen malgutasuna zabaldua;
- Hiriburuekin dauden loturak hobetzea;

## Autobus geltokietarako hiru markesina erosi ditu Udalak

Olakua, Olabarrieta eta Garibai auzoko geltokietan ipiniko dituzte

Herriko autobus geltokietarako hiru markesina enkargatu ditu Udalak. Horieta bi Herribusaren ibilbidean ipiniko dituzte; bata Olabarrietan, Legazpirako norantzako geltokian, eta bestea Garibai auzoko geltokian, Bergarako norabidean. Hirugarren markesina eskualdeko autobus zerbitzurako izango da, eta Olakuako geltokian kokatuko da, Legazpirako norabidean, egun sabaia apurtuta daukan markesinaren orde.

Udalak Martin Mena S.L. enpresari enkargatu dio hiru markesina berrien hornikuntza 14.176€-tan (BEZ gabe), eta hauek jaso ostean udal brigadak egingo ditu instalazio lanak urtarrilean zehar.

- Puntualtasuna bermatzeko neurriak hartzea. Azken horri dagokionez, neurri batzuk ere aipatu dituzte: zerbitzua emateko autobus kopurua egokitzea, autobusen baldintza tekniko egokiak bermatzea, eta Elorregi eta Epeleko errotonden artean autobusentzako errei berezi bat egokitzeko aukera aztertzea.

Gipuzkoako Batzar Nagusietan ere izan zen Debagoieneko alkateen ordezkari bat, eskualdeko mugikortasun arazoak bideratzeko berehalako neurriak eta Avanza enpresa eta langileen artean bitartekari egin dezan eskatzeko Foru Aldundiko gobernari. "Herrialdeko lehen indar politikoa izanik, Debagoiendarren ahotsa Batzar Nagusietara eramateko konpromisoa dugu", adierazi dute.

**Oñabike**

oñabike.com

Otadi 25, Oñati · Tel.: 943 78 05 65

BIZIKLETAK · PATINETEAK · KIROL EKIPAZIOAK



## "Ederra izan da. Eskerrik asko!"



Modu batera edo bestera Aloña Mendiren 75. urteurrenean parte hartu duten erakunde, elkarte, babesle eta herritar guztiei eskerrak eman nahi izan dizkie antolakuntza lanetan jardun duen taldeak. Kirol elkarteak bere baitan biltzen dituen 14 sailak bat eginda, 26 hitzordu burutu dira martxotik abendura bitartean, eta agerian geratu da, beste behin, zein errotuta dagoen Aloña Mendi herrian eta oñatiarren bihotzetan. Horren erakusgarri, irailaren 20an herriko plaza lepo bete zuten ekitaldi ederra, historikoa.

Baina Aloña Mendi ez da soilik kirola, eta horren lekuko urte osoko ekitaldietan presente egon diren lau oinarriak: ekarpen soziala, inklusioa, parekidetasuna eta jasangarritasuna. Urteurrena borobiltzeko, urte guztiko ekitaldiak eta elkarteko sail guztien gaineko informazioa jasotzen duen aldizkari ederra oparitu digute gainera. Zorionak eta eskerrik asko zuei, lanean jardun duzuenoi. Ez dadila katea eten. Aupa Aloña!



### Migel Mari Guridi 'Txome'rentzat Pake Leku saria

Pake Leku elkartearen 'Boluntariotza' saria Migel Mari Guridi 'Txome'k jaso du aurten. Komunitatearen alde egindako lana aitortzea eta eskertzea da sari honen helburua, eta ondo merezia du *Txome*k. Araotzen sortua, gaztetan ikasi zuen akordeoia jotzen eta, gerora, makinatxo bat jai eta ospakizun girotu izan ditu, besteak beste Pake Leku elkarteko txistorra eta gaztaina janak, Santa Ageda egunak... Bertako abesbatzan eta dantza taldean ere parte hartu du hasieratik, eta makinatxo bat konponketa lan ere egin ditu Pake Lekun. Bere emazte Juanitak ere lore sorta ederra jaso zuen.

## Txokolateixiarentzat lehen saria eta haurrena. Kimu-Urtxinentzat herritarrena.

Abenduaren 19an egin zen XVII. Erakusleihu Lehiaketako sari banaketa. **Txokolateixia** izan da aurtengo irabazlea, epaimahaiaren lehen saria (500€) eta haurrena (300€) eskuratuta. Bigarren saria (300€) **Barue** Interiorismoak jaso du, eta hirugarrena (200€) **Andrea Azkoaga** Interioristak. Herritarren saria (500€) **Kimu-Urtxin** lora dendarentzat izan da, bozka guztien (839) %24 jasota. Sari banaketaren ostean Udalak luntx batera gonbidatu zituen parte hartu duten saltokiak (23), eta eskertu egin zien egindako ahalegina.



**AYESTARAN**  
ARAIKUNTZAK S.L.

AITA LIZARRALDE KALEA 8, BEHEA, OÑATI  
TLF:943716454  
iayestaran.com

obra berria  
eraberritzeak  
etxebizitzaren eraberritzeak  
igogailuak, kota "0" lanak  
fatxada eta teilatuak



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlaren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

**Bidaurreta Dorrea z/g**  
**20560 OÑATI**  
**Tel.: 943 78 20 72**  
**kontzejupetik@onati.eus**



Oñatiko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

## KONTZEJUPETIK

### Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

### Zuzendaria:

Iñigo Arregi

### Publizitatea:

Aratz Losada

### Diseinua eta Maketazioa:

Aratz Losada

### Kolaboratzaileak:

Jerardo Elortza eta Euskaltegia

### Inprimategia:

Gertu

### Tirada:

5.500 ale

### Lege gordailua:

SS-357/91

### Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

### Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa  
20560 Oñati (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 78 20 72

## FAXISMOAREN ETA GERRAREN AURREAN

Maddi Altolagirre (GKSko kidea)

Badago gurean jende bat gizarte kapitalistak aurrean jarri dizkigun bi mehatxu handien existentzia ukatzen dituena: faxismoaren gorakada eta gerraren berehalakotasuna. Izan ustezko gen antifaxista bat aldarrikatuz, genozidioak babestu zein izkutatuz, hainbat gerratetan jaurtitako bomba eta armak sortuz edota arazoari ezikusia eginaz.

Guzti hauek bizi dugun egoera latzaren erantzule ere badira, ikustea besterik ez dago faxismoak "historiako gobernu aurre-rakoierna"ren agindupean, izandako gorakada, instituzioetan zein kale mailan. Oñati eta Euskal Herrian ere, agertu dira hainbat pintada zein pegatina; inmigrazioaren aurkako edota ustezko euskal arraza baten defentsarako mezuekin. "Lo que no te cuentan de Donosti" bezelako karaktere erreakzionariodun taldeek ere deialdiak egin dituzte. Horietan, inpunitate osoz, ultra eskuinak azken boladan ohitura duen moduan, proletargoa osatzen duten masa zabal batzuk seinatu eta gezurretan oinarrituriko afirmazioak zabaldu dituzte. Faxismoaren zein gerraren mehatxua jasaten dugunok badakigu, instituzioen konplizitate eta gobernuen bira militaristaren aurrean, independenteki antolatzea dela erantzun eraginkor bakarra.

Gaspe langileoi egoera honen aurrean kaleak hartzea dagokigu, gure kabuz antolatu ezean inork ez duelako gugatik ezer egingo. Gerraren eta faxismoaren aurka, gazte langileok lehen lerrora! Urtarrilaren 25ean Bilbon ikusiko dugu

## >> OHAR ETA DEIALDIAK <<

### Ekaintxou pailazoaren saiorako eta Txotxongilo ikuskizunerako sarrerak urtarilaren 13tik aurrera



Urtarrilaren 13an jarriko dira salgai (Txokolatexan eta Mizke goxoko dendan), Antixena gaztetxean otsailen izango diren **Ekaintxou** pailazoaren saiorako eta Otsomila taldearen **txotxongilo** ikuskizunerako. Ekaintxouren saioa **otsailaren 2an** izango da (Antixena gaztetxean, 17:00). Umorez, malabarismoz eta jolasen bidez kontatuko dizkigu bere bizipenak Ekain pailazoak.

**Txotxongilo** ikuskizuna **otsailaren 23an** izango da (Antixena gaztetxean, 17:00). Deabrutxo batek Zezengorrik zaintzen duen altxorra lapurtu du, eta Alaia Galtzagorria, publikoaren laguntzarekin, Euskal Herriko tradizio eta mitoetan barrera abiatuko da lapurtutako altxorraren bila. Euskal Herria magiaz, soinu eta pertsonai izugarriak beteriko lurraldea da.



# Mekalki

S. Coop. mekanizatuak

Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | [www.mekalki.es](http://www.mekalki.es)

## Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09  
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI



# 'Handik hona'



> Jarraian duzuen **Urko Egañaren** bertso sortak Eibarko *...eta kitto!* Euskara Elkarteak antolatutako San Andres bertso-paper lehiaketako lehen saria eskuratu du. > Doinua: *Lagundurikan danoi*

1.- Aurreko mendearen bigarren erdian non gabezi guztiak zeuden agerian, nerabazaroko bi pinport aurpegian, zorionsua nintzen neure alegian, urik ez zen tokian murgil igerian.

4.-Hots, nire patua zein zen banekien, ay! Euskal Herrian zeuden aita ta bi anai familiako beste denak helduko zai! Ta nik berriz ez nuen herritik irten nahi... Ez nuelako nahi ta ez nintzelako gai.

7.- Zorroztu nahian kamuts zegoen makila aurpegira heltzen zen ezpalek txirbila. Euri txiki petralla ta laino sonbrila, Burgos pasa orduko a ze duda pila... Herri ilun batean argitasun bila!

2.- Badajozko Quintana de la Serenako bi gurasoak ta bost seme-alabako familia bat ginen, ta noizbaiterako ez baldin bazitzaigun zer janik faltako geundenetik norabait atera beharko.

5.- Gabon batzuz ostean autobus batera (demagun zela garai hartako patera) igo ginen hamar bat famili batera. Nere konfortetik nahi ninduten atera; azeitunak jatetik indabak jatera.

8.- Gure aitak ta amak handik hona irten beharraren beharraz ederki zekiten. Nahizta batzutan urak egon irakiten zenbat gozatu dudan ez da zail jakiten, itsaso zabalean igeri egiten.

3.- Zail nekusan helduen begiz ikustea beharrezkoa zela herria uztea ta lagunekin neukan katea haustea... Ez da gauza polita globo bat puztea ta lotzen zabiltzala kolpetik hustea.

6.- Leiho ondoan jarri nintzen jakinean penetan itotzeko ahaleginean. Kanporantz begiratzuz minaren minean hatsez lurrundutako kristal zikinean gustuko marrazkirik egin ezinean.

**HARALD LINDER**  
ETXEETAN ERA GUZTIETAKO KONPONKETAK  
PERSIANAK, LEHIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...

DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA  
SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHAGO  
OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 ONATI - GIPUZKOA  
695 78 91 04 - 943 04 47 77

**ARRIZABALAGA**  
Aroztegia

**PAKITA**  
Altzariak

Berezao Ind. 10  
Tel. 943 78 14 64

Sta. Marina, 6  
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK



Gure ekintzen berri emango duen atala...

## >> KAIXO GURASO, HERRITAR <<

Gure artean gertatzen ari diren gertakari batzuen berri eman nahi dizuegu. Agian jakinaren gainean zaudete, edo agian ez... Herriko denda batzuetan lapurretan ari dira. Batzuk pentsatu dezaketena-ren kontran, lapurtzen ari direnak gure herrian jaiotako gazteak dira (13, 14, 15 urteko gazteak) eta gure abizen berdinak dituzte, gure seme-alabak (semeak, alabak baino gehiago) edo hauen lagunak baitira.

Lapurreta hauek, askotan, txinatar jatorriko Oñatiarrek dituzten dendetan ematen dira. Horrez gain, ekintza hauek batzutan ezkuntuan (produktuak fraka edo poltsikotan sartuz) ematen diren arren, askotan dendarekin konfrontazio egoerak bilatu izan dituzte, hauek umillatuz (arrazakeria keinu argi baten beraien hizkuntzaren azentua erabiliz) eta talde oso batek pertsona batekiko botere gehiegikeria/abusu egoera probokatuaz. Eta are gehiago, kuadrilla oso bat dendan sartu, eurotako batek motxila ireki, eta beste lagunek dendako produktuez motxila bete ostean korrika atera izan dira, dendariak ezer egiteko aukerarik izan gabe.

Lapurreta egiten dutenak batzuk dira, eta kanpoan, barez geratzen direnak beste batzuk. Jazarpen egoeretan gertatzen den bezala, hemen ere erasotzaileak batzuk dira eta hauen laguntzaile eta babesleak beste batzuk (konplizeak, "nik ez dot ezer egin" esaten dutenak, eskuak zikindu ez dituztelako. Baina erasotzaileek besteko erantzukizuna dute). Hirugarren batzuk berriz, alde egiten dute, ez dutelako horrelako gehiegikerietan parte hartu nahi, askotan baina, hirugarren talde honetakoak gutxiengo bat izaten dira eta talde presioaren kontra borroka egin behar izaten dute, baita "koldar" etiketa jasan behar izan ere. Guk ordea, \*hirugarren talde honetakoak indartu nahi ditugu, hauek baitira ausartak, presioari aurre eginez, errespetuaren langa non dagoen jakin eta aplikatzen dutenak.

Txinatar jatorriko herritarrek edozein modutan tratatzea normalizatzen ari gara, maila gutxiagoko herritar izango balira bezala. Hori ez da nerabeen kontua bakarrik LH3 (bai, 8-9 urteko umeak) ikusi izan baititugu plazako den-

GURE SEME-  
ALABAK DIRA,  
GAZTEAK  
DIRA, ETA  
ETORKIZUNA  
DIRA. BAINA  
EZ DUGU  
ETORKIZUNEKO  
OÑATIN  
HORRELAKORIK  
NAHI



dako gizonarekin hitz egiten, berari imitatu eta aurpegira barre eginez. Eta baita helduak ere, gaueko ordu txikitik, plazan, janaria saltzen dituztenak gaizki tratatzen. Beraz, erantzukizuna ez da bakarrik 13,14, 15 urteko nerabe hauena. Arazoa estrukturala eta espero baino sakonagoa ote?

Hau ez da oraingo kontua, baina azken aldi nabarmen goraka doan joera bat da, horrela diote, bai dendarekin, eta horrela diogu guk, gazteekin lan egiten dugun profesionalok. Kezka handiz, baina denda hauetara lapurtzera joatearena gazteen ahotan gero eta gehiago (eta tamalez, normalizatuago) entzuten ari garelako. Kaleko beste supermerkatu batzuetan ere egoera hauek pasatu izan dira; lapurretak, konfrontazioak, umillazioak... Bertako langile gehienak ere ez dira jatorriz oñatiarrak... kasualitatea ote? "No podemos hacer nada" "Se enfrentan a nosotros" "No queremos tener problemas" diote, beraiekin hitz egin dugunean.

Gure gazte hauek beldurra eragiten dute, intimidazioa, eta gainera ez dute ondorioen beldurrik ezta kontzientziarekin borrokarik ere. Baina gogoratu, talde batek pertsona batekiko izandako jokabide minkorra edo duintasunarekiko eraso botere gehiegikeria da. Gure seme-alabak dira, gazteak dira, eta etorkizuna dira. Baina ez dugu etorkizuneko Oñatin horrelakorik nahi.

Eta bai, gaizki egiten ari diren gazte hauek jakin behar dute Oñatin ez ditugula horrelako jarrerarik onartuko. Ez dugula abusu, gehiegikeria, indarkeria, arrazakeria eta lapurretarik onartuko. Limiteak, afektuarekin batera, hezkuntzaren pilare garrantzitsuenetako bat dira, eta helduok gara transmisio horren arduradun eta eredu. Beraz, hitz egin dezagun beraiekin, agian zure semea ez baita lapurtzen duena (edo agian bai, asko eta asko direlako), baina seguru bere inguruan egoera hauek ematen direla. Guk gazte hauekin dugun konprometzua irmoa da eta \*hirugarren talde hau indartzen jarraituko dugu, gazteek beste era bateko erreferente eta lider positiboak izan ditzaten, eta gaizki egiten dituzten jokabideak gutxitze aldera.

## AGENDA

### KUBOko ekintzak

- Urtarrilak 2, Laser TAG-a
- Urtarrilak 3, Salting + zinea irteera LH 5-6
- Urtarrilak 4 Iluntasunean galduta 2

### TOPALEKUko ekintzak

- Urtarrilak 2 Escape Room+zinea (Bilbo) DBH 3-4
- Urtarrilak 3 Prozesukoek antolatutako ekintza
- Urtarrilak 5 lazko prozesuko gazteekin irteera +bazkaria
- Urtarrilak 11 Keia+Delirium Tremens (12€/15€), 22:00



# Duela 40 urteko txapela

- > Gipuzkoako Ehiza Txikiko Txapelketa irabazi zuen Antonio Iturbek 1984an
- > Gerora ez du beste inork irabazi txapel hori Oñatin



Ezkerrean, Antonio saria jasotzen Ehiza federazioko lehendakariaren eskutik, 1984an. Eskuman, Aorduan irabazitako txapela eta dominarekin.

**40** urte bete berri dira Antonio Iturbek Gipuzkoako Ehiza Txikiko txapelketa irabazi zuenetik, eta garai hartan artean ez zegoenez ez udal ezta herri aldizkaririk ere, garaipen hura gogora ekartzeko une aproposa iruditu zaigu urteurren borobila.

Gerora ere izan dira Oñatin ehiztari onak eta txapelketak irabazitakoak ere, jakina. Jose Miguel Uribetxerria 'Irazola', adibidez, esaterako, Gipuzkoako txapeldun eta Euskadi nahiz Espainiakoan azpi txapeldun izan zen oilagorretan, eta Iker Urrutia bera ere Euskadiko azpi txapelduna izan zen ehiza txikian, batzuk aipatzearen. Baina Gipuzkoako txapelketa ez du beste inork irabazi, guk dakigula.



Iturbe eta **Ter** txakurra, setter-a


Zonaldeka sailkapen probak jokatu ostean, Jaizkibelen izan zen urte hartako finala, probintzial, abenduaren 15ean, eta Antoniok irabazi zuen txapela 8 faisán eta 5 eper ehizatuta. "**Ter** izeneko *setter* batekin parte hartu neben. Beteranua zen txakurra, baiña ona: euki dotenik onena", gogoratzen du Antoniok.

Ehiztari amorratua izan da eta da, oraindik ere Antonio. Soldaduskatik etorri eta segidan hasi omen zen; eskopeta erosi eta gaur arte, uso-pasa dela, oilagorretan, eperretan..., eta baita basurde ehizan ere. Uso-tiroan ere oso trebea zen Antonio, batez ere tubotik jaurtitzen zirenean, eta hiru aldiz irabazi zuen txapelketa probintziala. Txopekuako tiro eremuko arduraduna ere izan zen 12 urtez. -

 **COINBROKER**  
OÑATI ASEGURU ARTEKARITZA  
CORREDURIA DE SEGUROS

ASEGURU AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUA

📍 ARANTZAZUKO AMA KALEA 9, BEHEA  
☎ 943 089 006 📞 688 774 531 - WHATSAPP  
✉ OINATI@COINBROKER.EUS



# XX. Aloñako Igoera, apirilaren 27an

- > Oñatiarren izen-ematea **urtarrilaren 18an**, 10:00etan, zabalduko da
- > **Buetraitzeko** igoera bertikala ere egingo da aurten
- > Urtemuga borobila ospatzeko **asteburu osoko** egitaraua antolatu dute

Berezia izango da aurten Aloñako Igoera. Mendi lasterketa 2005ean antolatu zen lehenbiziko aldiz, eta aurten 20 urte beteko ditu. Urtemuga ospatzeko edizio berezi bat prestatu dute antolatzaileek. XX. Aloñako Igoera apirilaren 27an izango da, eta bi egun lehenago, ostiralean, Buetraitzeko igoera bertikala jokatu da.

Azken urteetan indarra hartu du Aloñako Igoerak mendi korrikalarien egutegietan, eta aurten ere goi mailako lasterketa dela erakutsi nahi du. Horregatik, 20. edizio hau zenbait berritasunekin dator. Horietan nabarmenena dortsalen banaketa da. Izena emateko sistema arrunta erabili ordez, zozketa bidez banatuko baitira aurten lehen aldiz.

**OÑATIARREK LEHENTASUNA**  
Berritasun horrek baina, ez



Azkorbebeitia Aloñako Igoeran, eta Lendinez Buetraitzeko bertikalean die oñatiarrei eragingo, parte hartzeko lehentasuna izango baitute aurten ere. Herriko korrikalariarentzat **80 dortsal** izango dira eskuragarri XX. Aloñako Igoeran. Gainerako dortsalak (**220**), aurrez izena ematen duten guztien artean zozketa bidez banatuko dira.



(19:00) eta egunean bertan argitaratuko da dortsala egokitu zaienen zerrenda, eta itxaron zerrenda ere bai.

**BUETRAITZ, AURTEN BAI**  
Aloñako Igoeraren hamargarren urtean egin zen lehenengoz Buetraitzeko Igoera Bertikala, eta aurten ere jokatu da lasterketa berezi hau. Bost urtean behin egiten da. Aloñako Igoerako asteburu berean izango da, ostiralean (apirilak 25), iluntzez. Kopetako argia jarrita igo beharko dute korrikalariak Arantzazutik Buetraitzeko tontorreraino. **Otsailaren 1ean** irekiko da izen-ematea.

Igoera bertikaleko proba ez da urteurreneko berezitasun bakarra izango. Aloña Txiki lasterketa ere egingo da, gaztetxoek ere parte har dezaten, eta bestelako ekintzak ere egongo dira asteburuan zehar.



## Malen Osa, 5. mendiko eskiko Munduko Kopan

A zelako hasiera eman dion Malen Osak mendiko eskiko munduko kopari. Courchevel-en (Frantzia) jokaturako lehen proban, lasterketa bertikalean (3,2km/+520m) 5. sailkatu da (26:38) podiumetik 40 segundo eskasera.

## 'GAILURRETAN IZAN GAITUN' Emakume mendizale aitzindariari buruzko erakusketa ikusgai Oñatin



Euskal Herriko Mendi Federazioaren mendeurrena dela eta, 'Gailurretan izan gaitun' Emakumea eta Mendi erakusketa antolatu da, eta Oñatin egongo da ikusgai urtarrilaren 10etik 29ra, kultur etxeko erakusketa aretoan, asteleheneetik igandera, 18:00-20:00.

Hogei panel eta ehundik gora argazki ditu erakusketak, eta federazioaren ehun urte hauetan emakumeek izan duten parte-hartzea ikusaraztea du helburu.



**Ingelesko Akademia**  
Listening Speaking Reading Writing

**Maite Aia** Aiestui Kortabarría  
Irakaslea  
Arantzazuko Ama, 3 behea  
943 53 36 57  
20560 OÑATI (Gipuzkoa)  
4sgoiena@gmail.com  
[www.4sgoiena.com](http://www.4sgoiena.com)

**URTARRILAK 10-29**  
I KULTUR ETXEAN,  
EGUNERO 18:00-20:00



# MENDIKO FEDERATU TXARTELA FORMATU DIGITALEAN ESKURA DAITEKE JADA



Euskal Mendizale Federazioak garatu duen APParen bidez federatu txartela formatu digitalean eskuratzeko aukera dago jada. Horretarako, 'EUSKAL MENDIZALE' doako APP-a **deskargatu** behar da *Play Store* (Android) edo *App Store* (Apple) atarrietatik. Deskargatu ondoren, gure gailu mugikorrean **instalatu** eta **ireki** egingo dugu.

Programak galdetuko digu ea uzten diogun EMF-FVMri (Euskal Mendi Federazioa) jakinarazpenak bidaltzen, eta baietz esango diogu 'Onartu' sakatuz. Ondoren, aplikazioa erabiltzen hasteko, gure NAN zenbakia sartu behar dugu. 'Pasahitza' laukitxoa hutsik utzi eta beheko aldean dagoen 'Ez daukazu erabiltzailerik edo pasahitza ahaztu zaizu' testuan sakatu behar dugu.

Leiho berri bat irekiko da eta, bertan, guren NAN zenbakia sartu eta 'Solicitar/Eskatu' botoia sakatuko dugu. Mezu bat agertuko zaigu, mezu elektronikoa bat bidali digutela esanez. (**Garrantzitsua** da gure klubari baliozko helbide elektronikoa eman izana eta federatu bakoitzak bere fitxan bere helbidea izatea, ez senideren batena).

Gure posta elektronikora joan beharko dugu (mendiko klubari eman dioguna) eta han ikusiko dugu Euskal Mendi Federazioaren mezua. Email horren beheko aldean dagoen estekan (<https://emf-fvm.playoffinformatica...>) sakatuko dugu. Ondoren, leiho bat agertuko zaigu gure NAN zenbakiarekin eta hutsik dauden bi laukitxorekin. Bertan idatzi behar dugu erabili nahi dugun pasahitza bi aldiz, eta 'Cambiar/Aldatu' botoian sakatu. (Aukeratu duzun klabea edo pasahitza gogoratu egin beharko duzu etorkizunera begira). 'Aldatu' sakatu ondoren, egin dugun aldaketa baieztatu egin beharko dugu.

Amaitzeko, programara itzuliko gara eta 'Erabiltzailea' laukitxoan gure NAN zenbakia, eta 'Pasahitza' laukitxoan guk aukeratutako klabea idatzi ondoren, 'Saioa hasi' botoian sakatu eta gure federatu txartel digitala agertuko zaigu. Gogoratu, formatu digitalean ez ezik, federazioko txartel fisikoa ere erabil daitekeela orain arte bezala.

Une honetan Aloña Mendiko mendi sailak 1.062 bazkide ditu eta horietatik 1.039 daude federatuta. Gogoratu, mendi irteeretan eta beste ekintza batzuetan parte hartzeko ezinbestekoa dela federatuta egotea.

## Montejurrara - Monjardin

**MENDI IRTEERA** / Urtarrilak 19

Aloña Mendiko mendi sailak urte berrirako antolatutako duen lehen ibilaldia Nafarroan egingo da, Lizarrako merindadean. Villamayor de Monjardin herrian abiatuta, Monjardin (894m) eta Montejurra (1.046m)



mendiak igoko dituzte (15km. eta 800m.-ko desnibela, 5-6 ordutan egiteko modukoa). Urtarrilaren 19an izango da irteera, goizeko 7etan, Korreoseko geltokitik. Izena emateko epea urtarrilaren 9tik 16ra, [alonamendi.mendi@gmail](mailto:alonamendi.mendi@gmail) helbidean. Bukaeran bazkaria egongo da Iratxeko kanpinean

### MENDI IRTEEREN EGUTEGIA - 2025

- Urtarrilak 19..... Montejurra
- Urtarrilak..... Eski travesia
- Otsailak 16 ..... Goizueta-Mandoegi-Urepel-Leitza
- Martxoak ..... Eski travesia
- Martxoak 16 ..... Azkoitia-Kakuta-Erlo-Azpeitia
- Apirilak 13 ..... Zilbeti-Adi-Urepel
- Maiatzak 18 ..... Gorobel-Lendoño-Tologorri-Ungino
- Ekainak 15 ..... Otzaurte-Aizkorri-Arantzazu
- Uztailak 19-20 .. Sallent
- Urriak 19..... Valderejo-Lalastra Vallegrull-Herrán
- Azaroak 16 ..... Oñatiko bideak: Araotz-Biozkornia-Oñati
- Abenduak 21 ..... Jarindo

## Aitor Murguzur irabazle Beran

**ZIKLO-KROSA.** Aitor Murguzur, Aloña Mendi-Egaralur/Magdalena Gasolindegia taldeko txirrindularia nabarmendu behar dugu beste behin, ziklo-kros denboraldi bikaina osatu baitu. Abenduaren 14an sasoiko hirugarren garaipena lortu zuen Beran, bi egun lehenago 3. sailkatu zen Santa Barbara sarian, eta hilaren 8an 4.a izan zen Igorren.



## Ikasi nola erabili gimnasioko makinak

**TAILERRA.** Kiroldegiko gimnasioko makinak egoki erabiltzen ikasteko saio irekiak egingo dira urtarrilaren 11n. Hiru txanda egongo dira: 9:30-10:15 / 10:30-11:15 eta 11:30-12:15. Saio teoriko-praktikoak izango dira. Izen-ematea, kiroldegiko harrieran edo eta gimnasioan.



## Malko oñatiarrek irabazi dute Gaztea Maketa lehiaketa

5.000 euro eta BBK Live jaialdian jotzeko eskubidea irabazi dute



Malko taldekoak saria jaso berritan

**Malko** rock-pop boskoteak irabazi du 33. Gaztea Maketa Lehiaketa eta, horrenbestez, 5.000 euroko sariaz gain, aurtengo *Bilbao BBK Live* jaialdian jotzeko aukera izango dute oñatiar gazteek. Abenduaren 19an izan zen finala, Gasteizko Jimmy Jazz aretoan, eta oñatiarrekin batera **Aramu** (Maruri-Jatabe), **Mikosis** (Gernika) eta **Mirail** (Urnieta) taldeak aritu ziren. Maddi Arlanzon (ahotsa), Unai Izura (baxua), Ander Igartua (bateria), Iñigo Santa Cruz (gitarra) eta Anje Maiztegi (gitarra) osatzen dute **Malko**. 2023ko maiatzean eman zuen bere lehen kontzertua, eta iazko martxoan kaleratu zuten *Esan ez direnak* lehen diskoa.

## Delirium Tremens-ek Oñatin egingo du geldialdia agurreko biran

> **Keia** takdearekin batera emango du kontzertua urtarrilaren 11n, Gaztelekuan

Bi talde handi izango ditugu Verduri Hall-Gaztelekuko oholtzan urtarrilaren 11n; euskal rockaren ikurretako bat izan den *Delirium Tremens* mutrikuarra, batetik, eta Ane Arruti zarauztarrak gidatzen duen *Keia* talde oñatiarra, bestetik.

Mutrikuarrak agurreko biran murgilduta daude. Ia 30 urtez isilik egon ostean, 2019an itzuli ziren, eta bi disko plazaratu ostean, agurreko bira egingo dute aurten. Oñatikoa hirugarren kontzertua izango da. **Keia** taldeari dagokionez, berriz, *Zamalanak* bere bigarren diskoa plazaratu berri du. Gaueko 22:00etan hasiko da kontzertua. Sarrera: 12€, aurrez, 15€ takilan.



**PINTURAS URBIA MARGOAK**  
Ultzeain kalea, 3 - Behea B • 652 71 08 37

**ARKITEKTURA**  
Baserriak \* Teilatuak \* Fatxadak \* Igogailuak  
Bidebarrieta 13. Oñati \* tel: 677 31 20 57  
amaia@aiarkitektura.com

**TALLER DE YOGA DE LA RISA**  
Sábado 11 de enero, 2025  
de 17 a 18:30 h.  
Espacio Eltzia, Oñati  
Facilita: Rubén Romero  
Reserva: Reyes - 628212839  
PRECIO: CAJA INVERSA

## Barrearen Yoga tailerra

Eltzian egoitza duen Artez Hezten (Creciendo con Arte) taldeak antolatuta, barrearen yoga tailerra egingo da urtarrilaren 11n, Eltzian bertan, (17:00-18:00). Barre-terapia eta arnasketa sakonaren teknikak uztartzen dituen saioa izango da, Rubén Romerok dinamizatuta. Erreserbatu lekua 628212839 (Reyes) zenbakira deituta. Taileraren amaieran ordainduko da, bakoitzak sentitu duenaren arabera.

## Neguko gida atera du udal liburutegiak

Adinka sailkatutako liburu, CD eta DVD gomendagarriak jasotzen dituen neguko gida plazaratu du udal liburutegiak, eskualdeko gainerako liburutegiarekin batera.

Ikastetxeen bitartez banatu da gida, baina formatu digitalean ere ikus daiteke [www.oñati.eus](http://www.oñati.eus) webgunean, eta udal liburutegian bertan ere eskura daiteke gida bera eta bertan gomendatzen diren dokumentuak ere.





## 'DASTATU AMETSAK'

Musika bandaren denboraldiko bigarren kontzertuak ametsen mundura eramango gaitu, film ezagunetako soinu banda ederren bidez

Errege egunarekin batera Musika Bandak eskainiko duen denboraldiko bigarren kontzertuak ametsen munduan bidaiatzeko aukera eskainiko digu, film ezagunetako (*Brave*, *Avatar*...) melodia ederren eskutik. *Disney*-ren produkzio arrakastatsuak dira asko, *Pixar* munduko pelikulak, eta, denetan protagonistek amets bat dute, eta kasu honetan Oñatiko musika bandak jarriko dio soinu banda ametsen mundu horri.



### ESTREINALDIA

Errege eguneko kontzertuan estreinaldia egingo du musika bandarekin Gillen Biain klarinete-jotzaile gazteak.

### EGITARAUA

- Disney Fantasy
- Highlights from BRAVE
- Titanic
- Selections from UP
- Encanto
- Avatar
- Pirates of the Caribbean Medley



### EGUNA ETA ORDUA

Urtarrilak 6, Zubikoa pilotalekuan (13:00)  
Aurretik (11:00) kalejira egingo du bandak.

**SARRERA: 2€**

[www.oñati.eus](http://www.oñati.eus) atarian eta Txokolateixan

## Arrasateko akordeoi jaialdian sarituak

Abenduaren 6tik 8ra Arrasaten burutu zen XXXVI. Akordeoi Jaialdian Jose de Azpiazu musika eskolako **Haizea Idigorasek** eta **Ane Zuluetak**. 'Hastapena-1' mailan aritu ziren biak ala biak, eta lan polita egin ostean gustura itzuli ziren diploma eta domina bana eskutan. Anek urrezko domina jaso zuen eta Haizeak zilarrezkoa. Goiko argazkian azaltzen dira biak Arantzazu Bikuña irakaslearekin. Guztira 243 neska-mutikok parte hartu dute aurten izaera hezitzailea eta ez-lehiakorra duen Arrasateko akordeoi jaialdian.

## 'Bendita locura' antzezlanak ikusgai Eskoriatzako 'Ausartak'-en eskutik

Pake-Lekuko 'Ikusi-Makusi' antzerki taldearekin egingo duten elkartrukeari esker, Eskoriatzako 'Ausartak' antzerki taldearen 'Bendita locura' antzezlanak ikusteko aukera izango dugu Oñatin, urtarrilaren 25ean. Gaurkotasuneko eta umorez nahiz sinpatiaz betetako antzezlanak dela aurreratu digute. Emakumeen aldarrikapenak eta umoreak jorratu ohi ditu bere ikuskizunetan 'Ausartak' taldeak. Emanaldia Santa Ana antzokian izango da, 19:00etan, eta sarrerak (5€) urtarrilaren 7tik aurrera eskuratu ahal izango dira Pake Lekuko tabernan



### ANE MERTZERIA



• Josteko zerak  
• Lentzeria  
• Umeen jantziak  
Kale Barria, 54 OÑATI

# MIÑAN

Afrikatik guregana etorri ohi diren migratzaileen odisea kontatzen duen antzezlana ikusi ahal izango dugu Oñatin urtarrilaren 26an



Ibrahima Baldek eta Amets Arzallusek 2019an idatzi zuten liburuaren egokitzapena egin du Artedramak

Ikusmin handia piztu duen **Miñan** antzezlana ikusteko aukera izango dugu urtarrilaren 26an (Santa Ana, 19:00) Artedrama Plataformaren eskutik.

Ibrahima Baldek eta Amets Arzallusek 2019an idatzitako liburu arrakastatsuen egokitzapena da. Zilarrezko Euskadi Saria irabazi zuen 2020an, eta, gerora sei hizkuntzatarara itzulia izan da.

Ibrahima Balderen bizitzaren kronika da Miñan (anaiatxo). Ibrahima Ginean jaio zen eta kamioi batean zebilen aprendiz, egun batean amak deitu zion arte: anaia txikia falta zen etxean. Eta haren bila abiatu zen Europara. Basamortua zeharkatu zuen eta polizia, bahitzaile, mugalari eta abarrekin topo egin zuen; egarriak, goseak eta minak



eragindako sufrimendua ezagutu zuen.

Afrikatik Europarako bidean, Mediterraneo zeharkatzen dutenak deshumanizatzea ezinbestekoa da haien heriotzen, kanporatzeen, ilegalizatutako bizitzaren gaineko ezaxola zabaltzeko. Baina bizitza horietako bakoitza bakarra da eta, beraz, unibertuala. Eta kontatzeak hori azpimarratzen du.

Timberlake Wertebaker-ek egin du antzerkirako egokitzapena eta Ander Lipusek zuzendari lanak. Sarrerak (10€) [www.oñati.eus](http://www.oñati.eus) webgunean.

 **ZURICH**

M<sup>o</sup> del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea  
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

 Gezalaga  
Margoak

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | [gezalagamargoak@hotmail.com](mailto:gezalagamargoak@hotmail.com)



# ITTEN BAT

## >> LITERATURA TXATALAK (I)

### ARTASO (I)



Denpora bateko Artasoko trikuharrizaren arrastuak (Argk.: K. Zumalde)

## Artasoko trikuharriza

✍ ROBERTO ALTUNA

**B**adakizu zergatik Artaso? Artaso dago, barrankuaren edo amildegi, sakonuna, arro edo trokiaren beste aldian, Arantzazuren gain-gaiñian. Artaso jausi zanian, esan izan dot nik, Arantzazu jaiki zan. Artaso da zelaiune bat, hiru artzain-txabola edo, eta dolmen bat. Beheratxuago, Gallerdi esaten xauen parajian, tumulu bat dago. Goixan, bostehun bat metrora, beste dolmen bat, Gallaurko dolmena.

Artaso gain horretatik bista zabal oso ederra dago. Arantzazu ikusten da batez be aurrez aurre. Oxigenau bihar izaten nebenian neure burua beste aire batzuekin, berriz be neuregana etorri bihar nebenetan, Artasoko tontorrera faten nintzan. Hor dolmena dago, harrixetan denpora zaharra erantsitta. Isiltasuna dago Artason.

Eta hor, nire denporan tradiziño batzailla izanda nago ni Arantzazun, eta jakin neben San Bernardora erromerixan faten ziranian Arabara, hortik pasaitten zirala. Eta Artason jaten eueilla meriendan azken mokadua. Eta Artason egitten eueilla azken dantzaldixa. Ze etziran faten mezia entzutera bakarrik. Mezia entzun, erreza, dantza egin, dibertiu pittin bat, alkar ikusi eta kontuak esan, gaztiak alkarrerri begixak lora-loran begiratu neska-mutillak, eta erromerixan etxera bueltau. Baserritarrak, badakizu, kanpora doianian, eruan egitten dau zer jana. Bazkaitten euen eta hondarra gero meriendaitteko gordeten euen. Hondar hori azkenian Artason meriendaitten euen, dantza egin eta bakoitzak bere otara aldegin baiño lehen.

*Hiru gizon bakarka.* Bitoriano Gandiaga.

Joxe Azurmediren epilogotik hartuta eta moldauta.

#### Azalpenak:

San Bernardo eguna agustuaren 20xan, Arabako Aspuru ondoko Barrian ospaketan da.

Esan: *Bixar bazoiazei San Bernardora?*

*Bai, bixar San Bernardo dakogu! Edo, hareik San Bernardo dakoi!*

Araoztarrak faten ziran Usakoetxenetik gehixenak eta beste batzuk Artixatik.

Arantzazuarrak, berriz, Artasotik gora.

# AGENDA

Kultur ekitaldiei buruzko informazioa eta sarrera salmenta  
www.oñati.eus webgunean (QR kodean) edo Txokolateixan



## ANTZERKIA

URTARRILAK 25 / 19:00

### 'BENDITA LOCURA'

Eskoriatzako 'Ausartak' taldearen eskutik (5€). [Santa Ana](#)

URTARRILAK 26 / 19:00

### 'MIÑAN'

Ibrahima Baldek eta Amets Arzallusek idatzitako liburu arrakastatsuen gainean Artedrama taldeak moldatu duen antzezlanana. Sarrera: 10€ (www.oñati.eus). [Santa Ana](#)

## BERTSOLARITZA

URTARRILAK 5 / 22:30

### ERREGE BEZPERAKO BERTSO SAIOA

Bertsolariak: Oihana Iguaran, Beñat Gaztelumendi, Maider Arregi, Andoni Rekondo, Eli Pagola eta Agin Laburu. Sarrera: 10€ (12 urte artekoak doan, baina gonbidapena hartuta (www.oñati.eus / Txokolateixa). [Zubikoa pilotalekuan](#)

## EKITALDI BEREZIAK

URTARRILAK 5 / 18:30

### ERREGE MAGOEN KALEJIRA

Meltxor, Gaspar eta Baltasar errege magoen kalejira Santa Anan hasita. Ondoren, harrera parrokian. [Kalejira eta harrera Parrokian](#)

## ERAKUSKETAK

URTARRILAK / 10-29

### 'GAILURRETAN IZAN GAITUN'

Euskal Herriko Mendi Federazioaren mendeurrenaren harira antolatuta, emakume alpinista aitzindarien ehundik gora argazkiz osatutako erakusketa. [Kultur etxean \(egunero, 18:00-20:00\)](#).

## HITZALDIK

URTARRILAK 15 / 10:00

### 'Ekonomia eta enpresak etengabeko eraldaketan murgilduta dauden honetan, zein da Unibertsitatearen egitekoa?'

Hizlaria: Lander Beloki, Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza fakultateko dekanoa. Oñatiko Esperientzien Gelak eta Goienagusik antolatuta. [Santa Ana](#)



## Euskal mago gazteen gala Oñatin

URTARRILAK 4, SANTA ANA ARETOA, 17:30

Magiak badu bere tradizioa Euskal Herrian eta, zorionez, gero eta gazte gehiago ari dira bide hori urratzen. Hala, gero eta ohikoagoa izaten da magia saioak ikustea gure inguruan, baita Oñatin ere, Potx magoaren ekimenez batez ere. Iaz Euskal Herriko mago gazteen topaketa egin zen Eltzian, eta aurten horietako lau mago gazteren —Iago Azkue (Azpeitia), Maria Arandia (Bilbo), Oier Agirresarobe (Usurbil) eta Oier Jurado (Markina)— trabeziaz gozatu eta liluratzeko aukera izango dugu, Oñatiko Potx magoak aurkeztuko duen saioan. **Urtarrilaren 4an** izango da, Santa Ana aretoan 17:00etan. Sarrera, 5€ (oñati.eus/Txokolateixa).

## IKUSKIZUNAK

OTSAILAK 2 / 17:00

### EKAINTXOU, 'ARLOTE BAT'

Ekain pailazoaren txou eroa. Umore, malabare eta jolasen bidez kontatuko dizkigu bere bizipenak. Sarrerak, Mizken eta Txokolateixan, urtarrilaren 13tik aurrera. [Antixena gaztetxean](#)

## LITERATURA

URTARRILAK 23 / 18:00

### IPUIN KONTAKETA

Haurrentzako (HH4-5) ipuin kontaketa saioa Oihana Etxegibelen eskutik. Gonbidapenak hilaren 13tik aurrera. [Haurren liburutegian](#)

## MUSIKA

URTARRILAK 6 / 13:00

### MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA

'Dastatu ametsak' izenburupean, film ezberdinetako soinu banda ezagunak entzuteko aukera. Sarrera: 2€. [Zubikoa pilotalekuan](#)

URTARRILAK 11 / 22:00

### KEIA + DELIRIUM TREMENS

Oñati-Zarautz eta Mutrikuko rock taldeen kontzertua. Delirium Tremens-en agurreko bira. [Gaztelekuan](#)

## Kaskezur + Naxker

URTARRILAK 19, IGANDEA  
GAZTETXEAN (18:00)



Burrunda Faktoriak antolatuta, Baztan eta Atarrabiako rock taldeen kontzertuaz gozatzeko aukera izango dugu urtarrilaren 19an. **Kaskezur** taldea *Deus* lan berria aurkeztera etorriko da. **Naxker** (neska+aske) 2022an sortutako taldea da eta feminismoaren balioak aldarrikatzen ditu. Pop eta punk-rocka nahasten ditu

## TAILERRAK

URTARRILAK 11 / 17:00-18:00

### BARREAREN YOGA

Barre-terapia eta arnasketa sakonaren teknika uztartzen dituen saioa, Rubén Romerok dinamizatuta. Artez Hezten taldeak antolatuta. Erreserbatu lekua 628212839 (Reyes) zenbakira deituta. [Eltzian](#)



## Badatoz Oñatiko Inauteriak-2025

**URTARRILAREN 14an HASIKO DIRA ENTSEGUAK**

Martxoaren 1ean ospatuko da aurten Oñatiko Inauteria, eta urtero legez, inauteri lan-taldeak entseguak prestatu ditu parte hartu nahi dutenentzat.

Urtarrilaren 14an hasiko dira entseguak: **martitzenero** 19:00etan eta **zapaturo** 12:00etan, Eltzian. Iaz bezala, parte hartzaile kopurua **mugatua** izango da aurten ere, eta izen ematea entseguetan bertan egingo da. Beraz, garrantzitsua izango da bertara joatea.

Aurten, gainera, beste desberdintasun nabarmen bat ere izango du izen emateak, izan ere, oraingo honetan **2008 urtean edo aurretik** jaiotakoek hartu ahal izango dute parte soilik. Animatu eta parte hartu!

**URTARRILAK 18 / 17:30-19:30**  
**PUNTUA EGITEN ETA BRODATZEN**



Puntua egiten eta brodatzen ikasteko tailerra. Haritik tiratzeko, ea zer topatzen dugun matazaren amaieran. Lekua erreserbatzeko: 628212839. Artez Hezten taldeak antolatuta **Eltzian**

# ZINEA

Zine-kluba: Osteguna (19:30)  
Nagusiak: Ostirala (22:00), larunbata (19:30 / 22:00) eta Igandea (19:30)  
Gaztetxoak: Larunbata eta Igandea (17:00)  
Ikuslearen eguna: Astelehena (19:30)

### Urtarrilak 2-6

**ZINE KLUBA:**  
**EL MONJE Y EL RIFLE**  
**NAGUSIAK:**  
**CONCLAVE**  
**GAZTETXOAK:**  
**KLARA ETA HAZI**  
**MAGIKOEN MISTERIOA**



### Urtarrilak 9-13

**ZINE KLUBA:**  
**PERFECT DAYS**  
**NAGUSIAK:**  
**VIVIR EL MOMENTO**  
**GAZTETXOAK:**  
**MUFASA**



### Urtarrilak 16-20

**ZINE KLUBA:**  
**ANORA**  
**NAGUSIAK:**  
**LAS VIDAS DE SING SING**  
(Benetako gertaeretan oinarrituta)  
**GAZTETXOAK:**  
**SONIC 3**



### Urtarrilak 23-27

**ZINE KLUBA:**  
**LA LUZ QUE IMAGINAMOS**  
**NAGUSIAK:**  
**ITOITZ UDAKO SESIOAK**  
**GAZTETXOAK:**  
**BAMBI UNA VUDA**  
**EN EL BOSQUE**



## FARMAZIA

### ANDUAGA

**San Lorentzo 3 / ☎ 943 78 21 16**  
Urtarrilak 7, 15, 16, 24, 25 eta 26.  
Otsailak 3 eta 4.

### IGARTUA

**Kale Zaharra 1 / ☎ 943 78 01 22**  
Urtarrilak 6, 8, 9, 17, 18, 19, 27 eta 28. Otsailak 5 eta 6.

### GARATE

**Kale Barria 42 / ☎ 943 78 05 58**  
Urtarrilak 10, 11, 12, 20, 21, 29 eta 30. Otsailak 7, 8 eta 9.

### ULDAIN

**Kale Barria 6 / ☎ 943 78 11 28**  
Urtarrilak 1, 3, 4, 5, 13, 14, 22, 23 eta 31. Otsailak 1 eta 2.

## ODOL ATERALDIA

**URTARRILAK 17 / 16:30-20:30**  
MU-ko Enpresagintza fakultatean. Aurrez, <https://gotatanta.eus> atarian har daiteke odola emateko txanda. Bestela, egunean bertan **943007884** zenbakira deituta.

## MERKATU TXIKIA

**APARTAMENTUA SALGAI** 60 metro karratuko eta gela bateko apartamentua salgai. Interesatuak deitu: 618 721 129.

**EROSI** Oñatiko fabriketan egindako produktu, katalogo, erreminta eta liburu zaharrak erosten dira. Deitu: 605 707 713.

**ETXEBIZITZA SALGAI** Babes ofizialeko 3 logeladun etxebizitza salgai Ugarkalde auzoan. 662 078 883.

**INGELES IRAKASLEA** Ingelesko irakasle partikular bat behar dugu 5. mailako haur bati astean egun baten (ordu 1) eskolak emateko. Interesatuak deitu: 629 373 919

**NEGOZIOA SALGAI** Oñatiko estetikaz zentroa saltzen dut erretiroagatik. Herriko erdigunean kokatuta dago. Deitu: 943 78 01 46.

## MERKATU TXIKIA

ataleko iragarkiak dohainik dira.  
[kontzejupetik@onati.eus](mailto:kontzejupetik@onati.eus)  
943 78 20 72



*Urte berri on!  
2025ean ere talde-lanean  
eta errespetuan, bizimodu aktibo  
eta osasuntsuan!*

*Eskerrik asko zuen konfiantzagatik!*



by @muxotepotolobat

